

#63 / 2025 UZTAILA

artelka

**KONTZENTRAZIO-
ESPARRUAK,
BURGESIAREN
TRESNA**

GEDAR

— **H**ona hemen
dilema moralaren
faltsutasuna: gizarte
kapitalistak eta potentzia handiek
entzungor egin nahi diote faxismoaren
goraldian haiek duten erantzukizunari “ez
zuela gertatu behar esanez”, eta, bitartean,
haien gaur egungo gizartea eta dominazio
kapitalista “gertatu behar ez zuen” horren
produktu dira, faxismoa ez baitzen
abangoardia burges antolatua besterik,
zeinak, gerraren eta autoritarismoaren
bitartez, munduko ordena berri bat ezarri
nahi baitzuen, hau da, menderakuntza-
subjektu berri bat, forma politiko berri
bat burgesiarentzat, nola eta burgesiaren
klase-batasunak eta haren sistema
guztiak bidea egiteko duen modu
bakarrean, hau da, biolentziaren bidez.

Edukia

6

8

32

46

66

EDITORIALA

Arteka

Dilema moral kapitalista

KOLABORAZIOA

M. García

**Marieletik Carabanchelera:
kontzentrazioa,
kolonialismoa eta faxismoa
Espainiako Estatuan**

KOLABORAZIOA

Manex Gurrutxaga

**Gaza: kontzentrazio-
esparru bat aire zabalean**

KOLABORAZIOA

Vaptsarov

**2030 Agenda:
kontzentrazio-esparru
italiarrak Albanian**

IRITZIA

Gaizka Iturralde

**El Salvador: askatasuna
ala segurtasuna**

Dilema moral kapitalista

Editoriala

Gaur egungo gizartean gerta daitekeen biolentzia oro gizarte horren eta hari eusten dioten horien erantzukizuna da, ez beste inorena. Zapalduaren lana bere burua askatzea da, eta bitartekoak inposatu egiten zaizkio. Nolabaiteko dilema moral batengatik bitarteko horiei uko egitea askatasunari uko egitea da; izan ere, bitarteko horiek ez dira haietaz libre gintezkeen istripu kontingente batzuk, baizik eta harreman sozial batzuen adierazpen objektiboak, eta haien manifestazio-bitarteko historikoak. Hori horrela izanik, hasieratik bertatik da faltsua biolentziaren –edo borrokaren beste zenbait manifestazio-formaren– alde edo kontra egon beharko ote genukeen planteatzun digun dilema, historia desitxuratzen eta lausotzen baitu, eta, hortaz, etsaiaren sistemaren parte da.

Dilema moral hori, maiz, iraganeko balorazioei lotuta ageri zaigu. Eta hori egitea hain da absurdua, ezen iragandako egitate batek gertatu behar ote zuen ala ez aztertzen baita –hori ikusi dugu, besteak beste, ezker abertzaleak eta ETako militanteek autokritika egin eta “inoiz ez zuela gertatu behar” esan dutenean–; ordea, errealtatea da egitate hori gertatu dela dagoeneko, eta zerbaitegatik gertatu dela.

Horri gehitu behar zaio, gainera, errebisionismo historikoari lotua egon ohi dela dilema moral, eta errebisionismo hori gaur egungo egoeran dela, non galdua baitago iraganeko gertaeren suhertasuna; suhertasun horrek, borroka-prozesu eta iraultza guztietan gertatu ohi den moduan, arrazionalitate politikoa eta mugimenduaren zuzendaritza kontziente bat ordezkatzun zuen, baina ez ezabatzen. Alabaina, borroka-ziklo baten porrotak disolbatu egiten du suhertasun iraultzailearen oinarria, arrazionalitate politikoa alegia, eta bien arteko –suhertasun iraultzailearen eta arrazionalitate politikoaren arteko– konexio historikoa desagiten du; horrela, de-

Hasieratik bertatik da faltsua biolentziaren –edo borrokaren beste zenbait manifestazio-formaren– alde edo kontra egon beharko ote genukeen planteatzun digun dilema, historia desitxuratzen eta lausotzen baitu, eta, hortaz, etsaiaren sistema moralaren parte da

rrotismoan eta porrot politikoan erortzen da, hainbestearino, non zalantzan jartzen baita biolentziaren erabilera, eta, harekin, zapalduak bere askatasunaren alde borrokatzeko duen eskubidea.

Alabaina, dilema moral hori ez dago iraganeko gertakariekin bakarrik lotua. Halaber, gertatzen egon behar ez luketen gertakariei ere erantzuten die. Gertakari horiek, ez luketenez gertatu behar, irrazionalitate arraro batengatik gertatzen dira, errealtate honi eta are gutxiago sistema kapitalistari ez dagokion fenomeno batengatik. Ondorioz, aurreko mendeko kontzentrazio-esparru faxista eta nazietan bezala, zeinak “ez zuten inoiz gertatu behar”, potentzia kapitalistak, egun, “beste garai bateko” sarraskitze-esparruak eraikitzen ari dira. Dilema, hortaz, nabarmen kontraesankorra da; gertatu behar ez zuen hori beste garai batekoa bada, garai hartan ekidinezina zelako gertatuko zen, hau da, gertatu behar

**Borroka-ziklo baten
porrotak disolbatu egiten du
suhartasun iraultzailearen
oinarria, arrazionalitate
politikoa alegia, eta bien
arteko –suhartasun
iraultzailearen eta
arrazionalitate politikoaren
arteko– konexio historikoa
desegiten du; horrela,
derrotismoan eta porrot
politikoan erortzen da**

zuelako. Hortaz, gertatu behar zuelako gertatu bazen, gertatu behar duelako ari da gertatzen orain ere.

Artেকaren aurreko zenbakian dilema moral horren antzeko adierazpen bat ikusi genuen. Bazirudien faxismoaren aurreko mendeko agerpena bereizirik zegoela gizarte liberal kapitalistatik; faxismoak berak ere antikapitalista gisa aurkeztu zuen bere burua hasieran. Eta hala izan balitz ere –nahiz eta ezinezkoa den–, antikapitalismoaren izenean gertaturiko ezer ez litzateke gizarte kapitalistaren eta haren defendatzaileen erantzukizunetik kanpo egongo, biolentzia iraultzailea ere kanpo ez dagoen bezalaxe, burgesiak haren ondorioak zapalduen borondate txarrari egotzi nahi dizkion arren.

Hona hemen dilema moralaren faltsutasuna: gizarte kapitalistak eta potentzia handiek entzungor egin nahi diote faxismoaren goraldian haiek duten erantzukizunari “ez zuela gertatu behar esanez”, eta,

bitartean, haien gaur egungo gizartea eta dominazio kapitalista “gertatu behar ez zuen” horren produktua dira, faxismoa ez baitzen abangoardia burges antolatua besterik, zeinak, gerraren eta autoritarismoaren bitartez, munduko ordena berri bat ezarri nahi baitzuen, hau da, menderakuntza-subjektu berri bat, forma politiko berri bat burgesiarentzat, nola eta burgesiaren klase-batasunak eta haren sistema guztiak bidea egiteko duen modu bakarrean, hau da, biolentziaren bidez.

Hortaz, juduen sarraskia –denbora luzean zapaldu baitzituzten Europako potentziek eta beren estatuetatik kanporatu–, eta koadro komunisten sarraskia, faxismoak eta nazismoak egina, burgesia guztiaren programaren gailurra dira, dudarik gabe, burgesiaren interesen adierazpen perfektuak, nahiz eta orain potentzia kapitalista guztiak zinismoz mintzo diren iraganaz, ihes eginez beren erantzukizunei, baita eta sistema kriminal honek –burgesiaren dominazioaren oinarria– gerretan, kontrairaultzetan eta kontzentrazio-esparruetan milioika gizaki, pobre, proletario eta besteren sarraskian duen erantzukizunari ere.

Horren ezer ezin da ezkutatu komunismoak us-tez eragindako heriotzekin, eta, jakina, iraultzaren biktima bat ere ez da iraultzaileen erantzukizuna. Zenbaki honetan aztergai ditugun kontzentrazio-esparruak ere ez dira sistema kapitalistatik aparteko zerbait, baizik eta sistema horren dominazio-logikaren berezkoak, eta harentzat beharrezkoak, baita komunismoari leporatu zaizkion horiek ere. Izan ere, gizarte hori ez zen bere oinarri propioetatik sortu eta garatu, baizik eta, Marxek aurreratu zuen moduan, beste gizarte baten zimenduetatik, zeinak denbora jakin batean aurrekoaren aje berberak dituen, eta, askotan, haren soluzio eta erantzunak behar dituen. Ezin dezakete gauza bera esan gizarte kapitalistak eta burgesiaren klaseak, zeinak, beren garai-
pen iragankor baina sobera goraipatu baten ondoren ere, kontzentrazio- eta sarraskitze-esparruak behar baitituzte biziraupen-tresna gisara. ●

**Hortaz, juduen sarraskia –denbora luzean zapaldu
baitzituzten Europako potentziek eta beren
estatuetatik kanporatu–, eta koadro komunisten
sarraskia, faxismoak eta nazismoak egina, burgesia
guztiaren programaren gailurra dira, dudarik gabe,
burgesiaren interesen adierazpen perfektuak**

MARIELETIK CARABANCHELERA: KONTZENTRAZIOA, KOLONIALISMOA ETA FAXISMOA ESPAINIAKO ESTATUAN

Testua — **M. García**



ESTATUA ETA FAXISMOA

Faxismoaren kontzepzio apologetikoak –burgesiari berezko zaio– faxismoa salbuespenezko erregimentzat hartu du logikoki zein historikoki, eta haren paradigma gisa aurkezten zaizkigu nazismoa eta Holokaustoa, faxismoaren berezitasunaren ebidentzia gisa. Alabaina, aipatutako forma politikoaren analisi zorrotzak haren garapen historiko konkretua hartu behar du aztergai gisa, eta ez forma ideal batean abstraitutako ezaugarri multzo bat (diktadura frankista kategoria horretatik kanpo utziko lukeena, esaterako), zientzia politikoak eta historiak sarritan egin izan duen bezala burgesiaren interesen morroi. Estatua, bere askotariko formetan, klase-dominazioaren organo bat denez gero –Marxen eta Leninen formula aintzat harturik–, diziplinamendurako eta lan-indarraren erregulaziorako baliabide eta estrategia sorta erraldoia batez baliatzen da. Estatu burgesak banaketarako, sailkapenerako eta dominaziorako duen joera nagusi hori forma politiko faxistan gorpuzten da modurik gordinenean. Ildo beretik, masa-prozesamenduaren, biztanleriaren kontzentrazioaren eta sarraskiaren genealogiak dominazio kolonialaren formetara garamatza ezinbestean. Era berean, honako hau uzten du agerian genealogia horrek: faxismoa, oroz gain, Estatuaren forma kontrairaultzailea eta antiproletarioa da, eta, ezinbesteko forma da –eta ez salbuespenezkoa– indar iraultzaileak boterea eraginkortasunez hartzeko gai ez direnean eta ordena liberalak metaketari eusteko ezintasuna duenean. Hain zuzen ere, bide esplizituki erradikal baten bidez ordena berrosatzeko eta klasearteko ituna lortzeko proiektua da, eta palingenesia nazionalean eta bortizkeria masibo gordinenean oinarritzen da.

**ZELATATZEA, ZIGORTZEA ETA
SARRASKITZEA: EUOPAR
FAXISMOAREN ERRO KOLONIALAK**

Hala, Gerra Handiaren eta 1917an Errusian abiatutako krisi iraultzailearen hedapenaren ondoren, langile-klase globala, lan-indarraren eramaile huts gisa, zentro inperialistan menperatu beharra zen, populazio ez-europarrak gizarte-harreman kapitalistetan integratzeko prozesuan egin zuten bezala. “Sozialismoaren aurkako gerra” –Mussolinik berak *Fasci Italiani di Combattimento* direlakoan sorreran esan zuenez– Italiako faxismoaren ardatz estrategiko bihurtu zen 20ko hamarkadan. Langile-mugimendua suntsitzea eta langileen bizi-baldintzak hondoratzea faxismoaren

funtsezko ezaugarriak izan ziren hasiera-hasieratik. Botererako bidea, hura gauzatzeko bidea, klase azpiratuak erabat gobernatzeko eskubidea lortzeko bidea zen. “Azpiratu” izaera hori eraiki ahal izateko, ezinbestekoa zen besteak beste arraza, komunitate nazionala, zibilizazioa, garbitasuna, higiena eta tankerako kategoriek eskaintzen zuten erreperitorio kontzeptuala, baita metropolian errepresio- eta sarraski-politiken zerbitzura jarritako taktika militarrek eta gizarte-erregulazio taktikak erabiltzea ere. Industriaren aurrerapenetan eta arrazionaltasun zientifikoan oinarritutako “modernitate alternatiboaren” proiektua (Robert Paxtonen hitzetan) jadanik prestatua zen kolonietan. Ikusi besterik ez dago adibide hauek: 1920ko hamarkadan, Espainiako Armadak arma kimikoak erabili zituen populazio zibilaren aurka Rifan, eta baita Italiak ere 1935ean, Abisinian; eta, 1904 eta 1907 bitartean, Alemaniak herero eta nama populazioaren erdiaren baino gehiagoren kontzentrazioa eta genozidioa eragin zuen Namibian, hego-mendebaldeko Afrika Alemaniarran –Alemaniako kontakizun historikoan komenientziaz ezkutatu izan zen Holokaustoaren berezitasun mistifikatuaren atzean–. XX. mendeko bigarren hamarkadako krisi beliko eta iraultzailearen garaia heldu zenean, lan-indarra kudeatzeko bidea Europako kanpoaldetik barnealdera igaro zen. Ekoizle nazionalen komunitatea kontrolik gabeko klase proletarioei eta haien erakunde “kosmopolitei” gailendu be-

***Faxismoa, oroz gain,
Estatuaren forma
kontrairaultzailea eta
antiproletarioa da, eta,
ezinbesteko forma da
–eta ez salbuespenezkoa–
indar iraultzaileak boterea
eraginkortasunez hartzeko
gai ez direnean eta ordena
liberalak metaketari eusteko
ezintasuna duenean***

“Azpiratu” izaera eraiki ahal izateko, ezinbestekoa zen besteak beste arraza, komunitate nazionala, zibilizazioa, garbitasuna, higiena eta tankerako kategoriek eskaintzen zuten erreperitorio kontzeptuala, baita metropolian errepresio- eta sarraski-politiken zerbitzura jarritako taktika militarrek eta gizarte-erregulazioko taktikak erabiltzea ere

har zitzaien: “judu-boltxebikeak” eta “komunista judu-masonikoak”, beste batzuen artean, sailkatu, segregatu, diziplinatu eta, azken buruan, sarraskitu beharreko orban bihurtu ziren, “barbaroak” edo “beltz basatiak” izanak ziren bezala. Prozesu horretan, forma sozial burgesaren berezko subjektua, bi aldiz askea eta desjabetua, berretsi eta ukatu egin zen, erabat deshumanizatutako eta menpean hartutako objektu bihurtu, eta haren gainean erori zen botere estatalaren jardute osoa.

1890 eta 1940 artean zabaldutako hari gorri horrek Alemaniak Ekialdeko Frontean egin zuen kanpaina lortu zuen bere adierazpen gorena: helburu banaezin bihurtu ziren SESB suntsitzea, Erdialdeko eta Ekialdeko Europa kolonizatzea (Alemaniako nazio- eta arraza-komunitatearen *lebensraum* bezala ulertua) eta juduak sarraskitzea. Kolonizatutako lurraldeetan erabiltzen ziren estatu-dominazio forma antzekoen pean, hau da, arau juridiko liberalaren presentzia diluituaren, etengabeko salbuespen-egoeraren eta muga hedakorren nozioaren pean (gaur egun estatu-proiektu sionistan koka ditzakegun elementuak), Europan segregatu, kanporatu, kontzentratu, bortxazko lanetara behartu eta sarraskitu egin zen “etsai judua”, eta harekin batera baita eslaviarrak eta azpikotzat jotako beste herri batzuk ere –Sobietar Estatuko biztanleak–. Komunitate nazionalak –*Volksgemeinschaft* direlakoak–, bere osotasunean, kide indibidualen masa guztiarekin, dominazio-funtzio hori betetzen du, gorputz sozial osoan txertatuta. Estatu modernoaren botere desindibidualizatu eta automatizatuak, masa-komunitate baten borondatean oinarritzen den heinean, forma faxistan du adierazpen gorena.

Espainiako Estatuaren kasua ez da salbuespena. Diktadura frankista izan zen, nazismoarekiko eta faxismo italiarrarekiko zituen espezifikotasunak eta ezberdintasunak gorabehera, domina-

zio forma horren erregimen politiko osatuena XX. mendeko Espainian. Izan ere, Espainiak zuzeneko parte-hartzerik ez zuenez kanpoko gerra handi batean, adibidez II. Mundu Gerran, barruko biztanleriaren aurkako errepresioa handiagoa izan zen termino erlatiboetan. Era berean, Espainiako iragan kolonialaren amnesia gorabehera, hari eratzaille bera aurkitzen dugu kolonialismoaren eta faxismoaren artean. Bi mendetan zehar abizen berak behin eta berriz, bai eta jaioterri, destino militar, kargu politiko eta polizial berberak zein enpresen edo lurren jabe berberak. Beren gorenera diktadura frankistan heldu ziren dominazio-politika horien historia berreraikitzeke, denboran atzera egin eta beste kontinente batzuetara begiratu behar da.

MATXINOENTZAKO KONTZENTRAZIO-ESPARRUAK: WEYLER KUBAN (1896-1898)

Biztanleria zibila kontzentratzeko politika esplanizitu eta planifikatu bat aplikatu zuten lehen estatuetakoa izatearen zalantzazko ohorea du Espainiako Estatuak (AEBekin eta Argentinarekin batera): Weyler jeneralak 1895-1898ko Kubako independentzia-gerran egindako “Birkontzentrazio” delakoa da plan hori, zeinaren aurrekariak Hamar Urteko Gerran (1868-1878) aurki baitaitezke.

1896ko otsailaren 16an, uharterko azken gerra piztu eta urtebetera, Valeriano Weyler y Nicolau gobernadore eta kapitain jeneralak, koloniaren agintari gorenak, honako bando hau argitaratu zuen ekialdeko probintzietan birkontzentrazioa agintzeko:

1. *Sancti-Spírituseko, Puerto de Príncipe probintzietako eta Santiago de Cubako jurisdikziokoak diren esparruetako biztanle guztiak Armadako buruak [...] dauden lekuetan kontzentratu beharko dute zortzi eguneko epean.*

2. *Zutabeek jarduten duten eremu osoan, landara irteteko, guztiz beharrezkoa izanen da igorritako bai-*

***Biztanleria zibila
kontzentratzeko politika
esplizitu eta planifikatu
bat aplikatu zuten lehen
estatuetakoa izatearen
zalantzazko ohorea du
Espainiako Estatuak (AEBrekin
eta Argentinarekin batera):
Weyler jeneralak 1895-1898ko
Kubako independentzia-gerran
egindako “Birkontzentrazio”
delakoa da plan hori,
zeinaren aurrekariak
Hamar Urteko Gerran (1868-
1878) aurki baitaitezke***

men bat [...] agindu hori betetzen ez duen oro atxilotuko da.

Urte bereko urriaren 2lean, irlaren mendebaldean ere berdin jokatzeari agindu zen beste bando batean:

1. Landa-eremuan edo herrietako gotorleku-lerrotik kanpo bizi diren biztanle guztiak zortzi eguneko epean birkontzentratuko dira tropek okupatutako herrietan. Matxinotzat jo eta hala epaituko da epe hori igarotakoan hustutako eremuetan dagoen gizabanako oro.

2. Erabat debekatuta dago herrietatik elikagaiak ateratzea [...]. Araua hausten duten horiek matxinoen laguntzaile gisa epaitu eta zigortuko dira.

Weylerren gobernu militarren garaian, 400.000 pertsona sartu zituzten Kubako 80 kontzentrazio-puntu baino gehiagotan. Politika horren helburua –eta 50 urte geroago helburu bera izan zuen kontramatxinada frankistak Iberiar Penintsulan– Kubako Askapen Armadako (ELC) matxinoak biztanleria zibiletik eta haien laguntza-sareetatik bereiztea zen. Bortxazko birkokapenarekin eta masadeportazioekin batera, lur errearen politika aplikatu zuten eremu hustuetan. Hiri eta herri gotortu

eta birkontzentratuetako *bohío* zirelakoetan (Kubako txabola tipikoak), hildako asko eragin zituzten epidemiek eta goseteek, zeinak, gerraren ondoriozkoak ez ezik, abereen eta laboreen konfiskazio eta suntsipenen ondoriozkoak ere bai baitziren. Era berean, eremu horietako batzuetan –adibidez, Pinar del Río– bortxazko lanak eguneroko ogia ziren. Politika horren ondoriozko baja zibilen kopurua 60.000tik 500.000ra bitartekoa dela kalkulatu da, eta azterlan berrien arabera, berriz, 170.000 bat, hau da, uharteetako biztanleriaren %10 inguru.

Ez zen soilik uhartea iparralde-hegoalde banatzen zuen hesien (*trochak*) bidezko banaketari laguntzen zion taktika militar bat, baizik eta “berhispanizatu” behar zen uharte baten izu selektiboko eta garbiketako politika bat. Habanako *Casino Español*en kokatutako elite espainolistak argi zuen “Kuba espainiarra edo [...] erraustua” izanzen zela. Kubatarrak, matxinadako parte-hartzaileak izan zein ez, susmagarritzat hartzen ziren. Era berean, penintsulako Berrezarkuntzako elite liberalak “espainiar zibilizazioaren” etsai ziren matxino kubatar “beltz eta basati” batzuen aurkako gerra gisa ulertzen zuen gatazka: muturreko neurriak aplikatu zekiokkeen etsai baten aurkako gerra gisa, hain zuzen ere. Salbuespen juridikoko guneetan denbora-mugarik gabeko kontzentrazioa egitea neurri zibilizatzaile gisa ikusten zen. Weylerrek berak taktika militar horren asmatzaile gisa ematen zuen jakitera bere burua (urte batzuk geroago beste kolonia batzuetan aplikatuko zen, hala nola Hegoafrikan). Aldi berean, aipatutako politika Filipinetan aplikatzeko baimena eskatu zuen Polavieja jeneralak (Weylerren destinoa izan zen lehenago).

**“KUBAKO KAPITANTZA”:
BARTZELONATIK MADRILERA**

Kubako matxinoen aurka 1860ko hamarkadan hasi zen errepresio politika hura (ez da ahaztu behar plantazioetako esklaboaren aurka ere aplikatzen zela, gutxienez lan egiteko modu hori 1886an ezabatu zen arte), birkontzentrazioaren indarkeria masiboarekin gorenera iritsi zena, ez zen 1898an hil. Esklavo-trafikoaren eta azukre-kanaberaren kapitalek beren lekua Kataluniako ehungintzan aurkitu zuten bezala, biztanleak kontrolatzeko eta boterea erabiltzeko modu horiek, diskurtso ultranazionalista batez lagundutik, Kataluniako Kapitaintza Nagusira eraman ziren. Bartzelona zen langile industrial gehien zituen Espainiako probintzia, langile-mugimendu aktiboena zuena, baita espainolismoaren markoaren aurkako joera nazionalistak zituen ere. Espainiako jeneralek

**Habanako Casino Españolen kokatutako
elite espainolistak argi zuen “Kuba
espainiarra edo [...] erraustua” izanen
zela. Kubatarrak, matxinadako parte-
hartzaileak izan zein ez, susmagarritzat
hartzen ziren. Penintsulako
Berrezarkuntzako elite liberalak “espainiar
zibilizazioaren” etsai ziren matxino
kubatar “beltz eta basati” batzuen
aurkako gerra gisa ulertzen zuen gatazka:
muturreko neurriak aplikatu zekizkiokeen
etsai baten aurkako gerra gisa, hain
zuzen ere. Salbuespen juridikoko guneetan
denbora-mugarik gabeko kontzentrazioa
egitea neurri zibilizatzaile gisa ikusten zen**

“bigarren Kuba” gisa ikusten zuten. “Kubako kapitaintzaren” eredu errepresiboa Weylerren, Martí-nez-Anidoren eta Milans del Bosch tokiko homologoek erabili zuten probintziako Gobernu Zibil eta Militarrean, eta eredua estatu osora hedatzeko saiakerak goia jo zuen Miguel Primo de Riveraren diktadurarekin (1923-1930), zeina garai hartan Kat-luniako kapitain nagusia baitzen eta ibilbidea egina baitzuen Espainiako kolonietako hiruko nagusian (Filipinak, Kuba eta Maroko). Gobernu-erakunde horiei lehen erakunde protofaxistek laguntzen zieten, beren forma eskuadratan –La Banda Negra, Sometent, La Traza–; izua zabaltzen zuten langileen artean (batez ere anarkosindikalismoan kokaturik) edo langileak atzematen saiatzen ziren tradizionalis-motik –Sindicatos Libres– zetorren erretorika obre-ristaren bidez. Erakunde horien sustraiak Kubako espainolismo ultranazionalistaren milizietan aurki daitezke, hala nola Cuerpo de Voluntariosen edo Liga Patriótica Española, zeinak jada estatu militarren talka-indar zibil gisa funtzionatzen baitzuten.

“GERRA AMAITZEAN ESTOLDAK SUNTSITU BEHARKO GENITUZKE”

Kuba kontzentrazio-politika eta antzeko tresna batzuez erditu zen; Rifeko gerrak (1909-1927), berriz, sarraski-gerraren eduki ideologikoa eta berezko tak-tikak (“lurraldea lisatzea”) eman zizkion Espainiako Armadari, eta horiek Asturiasko proletariotzaren aurka aplikatu ziren 1934an entsegu orokor gisa, eta modu erabatekoan 1936tik aurrera gerra zibilean matxinatutakoen aurrerapenaren kontra, diktadura frankistaren oinarria izan baitziren. Esperientzia ko-lonialak politika hori garatzeko eta aplikatzeko bal-dintza material eta ideologikoak sortu zituen. Fran-kismoak, bere bilakaeran izan zuen faxistatze-maila aldakorra gorabehera, masen jazarpenean, auzipet-zean, kartzelatzean eta exekuzioan oinarritu zuen be-ti bere boterea, betiere komunitate nazional politiko, sozial eta ekonomiko bateratu bat berrerratzeko ort-zi-mugaren menpe. Proletariotzari arrazionaltasun zibilizatzailea –klase-dominazioa– ezartzeko gurut-zada baten moduan proposatu zen gerra zibila, prole-tarioak azpizgizakitzat jotzen baitziren, “horda gorri” gisa. Proletariotza hori besteak beste Rifeko, Kubako, Gineako eta Filipinetako subjektu kolonialaren ant-zeko terminoetan kontzebitzen zuten.

“Begira, gure plana Espainiako gizonezkoen biztan-leriaren herena akabatzea da. Horrek herrialdea gar-bituko du eta proletariotzarengandik libratuko gaitu”.

Hala zioen gerra zibil betearen Gonzalo de Aguilera y Munro aristokrata eta lur jabe salamancarrak. Ka-pitainak bere arrazoibideari jarraitu zion:



“Guk, pertsona gizalegezkoak, gure lantegiak di-tugun hirietan haiei etxebizitza modernoak emateko akatsa egin genuen. [...] Estoldak jarri genituen. Ho-rren ondorioz, esklaboek populazioak gora egiten du. Madrilen, Bartzelonan eta Bilbon estolderiarik ez ba-genu, buruzagi gorri horiek guztiak haur izanik hilko ziren, jendaila asaldatu eta Espainiako odol noblea isurtzea eragin beharrean. Gerra amaitzean, estoldak suntsitu beharko genituzke”.

Aguilerak Marokon egin zuen soldadutza, eta matxino riftarren kopia bat baino ezin zuen ikusi bere lursailtako landa-proletariotzan. Premiazkoa zen garbiketa-politikak aplikatzeko boltxebismoaren birusaz (edo “gene gorriaz”, bere bertsio psikiatriza-tuan) kutsaturik zeuden gorputz arrotz gisa ikusten zituzten klase proletario haien aurka. Gerra zibilean



Frankismoak, bere bilakaeran izan zuen faxistatze-maila aldakorra gorabehera, masen jazarpenean, auzipetzean, kartzelatzean eta exekuzioan oinarritu zuen beti bere boterea, betiere komunitate nazional politiko, sozial eta ekonomiko bateratu bat berrerratzeko ortzi-mugaren menpe

***Mobilizazio iraultzaileek mehatxupean
jarria zuten ordena burgesa, eta,
hura inposatzeko, kontzentratu eta
fisiko desagerrarazi egin behar ziren
proletariotzaren geruza zabalak
(Asturiasen 1934ko urrian egin
zen bezala), batez ere penintsulako
hegoaldean, non burgesia lur jabea
kinka larrian baitzen 1933az geroztik***

egindako aurrerapen militarrean, frankismoak, esperimentzia kolonialen erronka onartu, eta klase-sarraskitze estrategia erabateko bat proposatu zuen. Aguilera baiezatu bezala, matxinatutako agintari militarrek jakin bazekiten mobilizazio iraultzaileek –1909tik aurrera hedapen azkarra izan eta 1930eko hamarkadan jo zuten goia– mehatxupean jarria zutela ordena burgesa, eta, hura inposatzeko, proletariotzaren geruza zabalak kontzentratu eta fisikoki desagerrarazi behar zirela (Asturiasen 34ko urrian egin zen bezala), batez ere penintsulako hegoaldean, non burgesia lur jabea kinka larrian baitzen 1933az geroztik. Klase burgesaren pentsamoldeak honakoa defendatzen zuen: “azkarregi ugaltzen dira, [...] animaliak diren aldetik, ezinezkoa da boltxebismoaren birusaz ez kutsatzea. Azken finean, arratoiak eta zorriak dira izurriaren eramaileak”.

Yagüe, Queipo de Llano eta Francoren zutabeek, Madrilerako bidean, kontzienteki aplikatzen zuten tokiko botere burgesen laguntzarekin Aguilera eta bere klasekoek “Espainiaren eraberritzea” deitzen zuten hori: biztanleria etsaia soberakintzat eta helburu militartzat hartu behar zen. Ez zen gerraren berezko basakeria hutsa, baizik eta klase proletario horietako geruza zabalak kontzentratu eta kartzelatu egin behar ziren, edo deuseztatu, nazioaren osasuna berrezartzeko. Hala egin zuten Badajozeko Sarraskian, non Sevillatik Meridarako errepidetik ihesi zihoazen biztanleriaren aurka egin zuten “Heriotzaren Zutabea” izenekoaren eskutik, eta Mola jeneralak Nafarroako edo Logroñoko probintzietan ere dozenaka mila pertsona erail zituen.

MIKOMESENGEKO LAZARETOA

Kuban eta Rifen izandako esperientzia aztertu den bezala, gerraosteko errepresioaren eta frankismoaren kontzentrazio-esparruen gaian sakondu aurretik, Ginea Espainiarrean erabilitako kontzentrazio-eredua aipatu beharra dago. Gineako osasungintza kolonialaren kontrol biopolitikoko formatan lortu zuen bere formulaziorik esplizituena Espainiar “Arraza” berrezartzeak –Kubako politikakeria liberalaren *bizkarreko sastakadak* traizionatua eta irmo defendatua izan ondoren riftar kabilen aurrean eta ondoren “Moskuko horden” aurka–. Zenbait lege-xedapen tarteko, 1945ean derrigorrezko bilakatu zen legenarra zuten horiek agintari kolonialetik entregatzea –era berean, tifusaren aurkako borroka preso errepublikanoen errepresiorako arma gisa erabili zen–. Arraza-irizpideen arabera antolatutako kontzentrazio-, berreziketa- eta lan-guneak eratu ziren, ingurunetik bereiziak eta guardia kolonialak kontrolatuak. Hala izan zen Mikomes-

Ginea Espainiarrean, arraza-irizpideen arabera antolatutako kontzentrazio-, berreziketa- eta lan-guneak eratu ziren, ingurunetik bereiziak eta guardia kolonialak kontrolatuak

engeko lazaretoan, kartzela irlen lehen planen eboluzioa izan baitzen. Ikusiko dugun moduan, eredu metropolitarrarekin batera, gosea, torturak, lan behartua eta amak haurrengandik bereiztea (haurren heriotza-tasa %70 ingurukoa zen), besteak beste, eguneroko ogi izan ziren eremu segregatu horietan, non biztanleria natiboa banatzen zen espainiar dominazioaren pean. Era berean, *sigsa*-sistema bat ezarri zen; ordena erlijiosoek kontrolatutako derri-gorrezko barneratze-zentro horien helburua erritu katolikoaren bidez ezkontzera zihoazen emakumeak europartzea zen, eta, haietan, ohikoak izaten ziren tratatu txarrak eta sexu-abusuak.

“ERABAT SARRASKITU ARTE”

Klase-gerra eta haren metodo errepresiboen erreperitorioa ez ziren bukatu 1939ko apirilaren lehenean, hots, “armada gorria gatibu hartu eta desarmatu” zenean eta Errepublikak amaitu zenean (Errepublikaren klase-erakunde ere burgesa zenez, matxinatuak erregimen politikoaren formaren plano konkretuan baino ez ziren nagusitu): herrialdea garbitu beharra zegoen frankismoaren Ordena Burges Berria eraikitzeko. Guardia Zibila zuzendari nagusiak 1941an esandako hitzetan, “landako etsaiei gupidarik gabeko gerra” egin behar zitzaizkien, “erabat akabatu arte”. Ekialdeko Europar nazien kasuan bezala, 1936az geroztik, laxotasun juridikoko eta gorputz militarren espontaneotasuneko testuinguru batean planteatzen zen errepresioa, baina hori guztia Estatuko instantzia gorenetatik eratorritako zigor-politika horrekiko agindu argien barruan. “Bake” garaian, errepresioak eguneroko ogi izaten jarraitu zuen, batez ere kontuan hartuta kontramatxinadaren operazio-agertokien kokapen nagusia landa-eremuetan zegoela, non Estatuaren presentzia txikiagoa baitzen.

BANDO

D. VALERIANO WEYLER Y NICOLAU, MARQUES DE TENERIFE

Gobernador General, Capitán General de esta Isla y General
en Jefe de su Ejército, &, &, &.

ORDENO Y MANDO

1.º Todos los habitantes en las tropas ó fuera de la línea de fortificación de las pobladas, se reunirán en el término de ocho días, en los pueblos ocupados por las tropas. Serán considerados rebeldes y juzgados como tal, todo individuo que transcurrida esa plaza se encuentre en desobediencia.

2.º Queda prohibido en absoluto la extracción de víveres de los poblados, y la confusión de uno á otro por mar ó tierra sin permiso de la autoridad militar del punto de partida. A los infractores se le juzgará y pasará como análogos de los rebeldes.

3.º Los dueños de reses deberán conducir las ó los ganados á sus inmediaciones, para lo cual se les dará la protección conveniente.

4.º Transcurrido el plazo de ocho días que en cada término municipal se contará desde la publicación de este bando en la cabecera del ayuntamiento, todos los insurrectos que se presenten, serán puestos á mi disposición para fijarles el punto en que hayan de reunirse, siéndoles de recomendación el que faciliten noticias del escondite que se puedan proporcionar, que la presentación se haga con suma de fuego y más seguridad si esta fuera colectiva.

5.º Las disposiciones de este Bando sólo son aplicables á la provincia de Pinar del Río.

Habana 21 de octubre de 1896.

VALERIANO WEYLER



Armada frankistak errepresio taktika sorta zabal bat erabili zuen, benetako sarraski-politika bat. Miaketak, segadak, zibilen sarraskiak, exekutatuena gorpuen erakusketa, etxebizitzetara eta landagunetara egindako eraso armatuak –artilleriarekin eta guzti– eta herritarrak esparru eta kartzeletan kontzentratzea, besteak beste, ez ziren mendekumugimendu espontaneo hutsak izan, baizik eta Estatuaren jarraibideak, Guardia Zibilak gauzatuak

Bere Europako homologoak baino bost urte lehenago, Armada frankistak errepresio taktika sorta zabal bat erabili zuen, goitik beherako sarraski-politika bat. Miaketak, segadak, zibilen sarraskiak, exekutatuena gorpuen erakusketa, etxebizitzetara eta landagunetara egindako eraso armatuak –artilleriarekin eta guzti– eta herritarrak esparru eta kartzeletan kontzentratzea, besteak beste, ez ziren mendekumugimendu espontaneo hutsak izan, baizik eta Estatuaren jarraibideak, Guardia Zibilak gauzatuak (1844an jada barne gorputz militar gisa sortua). Francoren Kuartel Nagusiaren zuzeneko aginduek hala adierazten dute: “Kontzentrazio marxistei dagokienez [...] beharrezkoa da aipatutako partidak ahalik eta lasterren akabatzea”. Ordena Berriaren aurka zeudenentzako zigor kolektiboa ez zen soilik gerrillarietara zuzendurik egon, baizik eta komunitate osoei, lorratz kolonialari jarraikiz –baita hemeretzigarren mendeko bandolerismoaren aurkako errepresioaren lorratzari eta karlistaldietan bereziki Hego Euskal Herrian aplikatutakoarenari ere–. Esaterako, 1945 eta 1952 artean, Castellóko probintzian, Guardia Zibilak eta beste indar batzuek eragindako hildakoen %75 zibilak izan ziren. Errepresalia masiboak, tokiko botereen laguntzarekin, familien, bizilagunen eta, azken buruan, klase eta sektore sozial espezifikoen aurka hedatu ziren, 1936ko uztailaren 18an hasitako bideari jarraituz, “Espainia gorrietatik garbitzeko”. Gerrilla anti-frankistaren presentzia handieneko eskualdeetan atxiloteta masiboak eta etengabeak gertatu ziren, eta jipoiekin (gaitasun fisikoa proletariotzaren bizibide bakarra zela jakinda egindakoak sarri) eta kuarteletako exekuzioekin amaitzen ziren. Ahalik eta botere handiena gorputz sozial osoan hedatzea-

ren ildotik, Estatuak lur errearen politikak aplikatu zituen: ehunka hektarea suntsitu zituen modu planifikatuan, eta herrialdea “kartzela erraldoi” bihurtu zuen; familia osoak deportatu zituen, eta herri osoak konfinatu eta setiatu zituen etxebizitzetara kontrolaren eta etxeratze-aginduen bidez, herriak gaueko kartzela bihurturik. Etxebizitzetara –masiak, kortijoak eta tankerako landako bizigune sakabanatuen antzera– beti zeukaten *manu militari* suntsituak izateko aukera baldin eta loturarik baldin bazuten Erregimenari aurka egiten zioten elementuekin.

300 kontzentrazio-esparru inguru ezarri ziren diktaduran zehar. Errepresioaren formak bezain askotarikoak izan ziren esparru horiek. Baziren gerraosteko birkontzentrazio-politikaren kalkoak, gerrilla eta haren laguntza-sarea deuseztatzeko helburua zutenak. Beste errepresio forma bat zen, adibidez, Tefiako Espetxe Nekazaritza Kolonia; 1954 eta 1966 artean egon zen martxan eta Alfer eta Gaizkileen Legearen arabera zigortutako sexu- eta genero-disidenteak zigortzen zituen. Ildo berean zeuden Mataderoako giltzapetze- eta sailkatze-zentroa (Madrilgo Udaleko Eskaletasunaren Errepresio Zerbitzuak kudeatuta), bai eta lan esklaboaren sare erraldoi bat ere, Zigorrek Lanaren Bitartez Ordaintzeko Patronatuak babestua beste forma batzuekin batera, hala nola Soldadu Langileen Diziplina Batailoiarekin (patronatu hori 1938an sortu zen); sare hari esker, dirutza egin zuten hainbat enpresaburuk, hala nola José Banúsek, Madrilgo Pilar auzoaren edo Marbellako luxuzko portuaren eraikitzaileak. Diktaduraren beraren kopuruaren arabera, 1941ean 230.000tik gora ziren presoak, hau da, 100 espainiarretik 1 gutxienez kartzelan edo

kontzentrazio-esparru batean zegoen. Beste erregimen faxista batzuekin alderatuz gero, ikusiko dugu Espainian 30 preso zeudela Alemania nazian espetxeratutako bakoitzeko. Exekuzioei dagokionez –datuen arabera, 150.000 eta ia 300.000 artean izan ziren–, proportzioa 1.800ekoa izanen litzateke Mussoliniren Italian bake garaian exekutatutako pertsona bakoitzeko.

CARABANCHEL: FRANCOREN PANOPTIKOA

Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo kontzentrazio-esparruen eta espetxeratze masiboen mapa horren gune nagusietako bat Carabanchelgo kartzela izan zen, Estatu frankista berriaren errepresioaren eta klase dominazioaren ereduaren paradigma. 1940an, frankismoko funtsezko beste gune batzuekin –hala nola Erorien Haranarekin– modu esoterikoan bat egiten zuen kartzela-makroproiektu bat eraikitzen hasi zen preso errepublikanoen lan-indar esklaboa, Madrilgo erdigunetik 5 kilometro eskasera. Francok berak esandakoari jarraikiz, “lantokiak ziega iluna ordezkatzeko” zuen. Eredu erradial panoptikoak, non argia eta etengabeko ikusgarritasuna funtsezko elementuak diren, Berrezarkuntzaren errepresio-tradizioa dakarkigu gogora (Bartzelonako Model kartzela hartu zen erreferentetzat), eta aukera ematen zuen presoak erregimen berriari zioten atxikimen-

Diktaduraren beraren kopuruen arabera, 1941ean 230.000tik gora ziren presoak, hau da, 100 espainiarretik 1 gutxienez kartzelan edo kontzentrazio-esparru batean zegoen. Beste erregimen faxista batzuekin alderatuz gero, ikusiko dugu Espainian 30 preso zeudela Alemania nazian espetxeratutako bakoitzeko







Estatu frankistak lege- aparatu oso bat osatu zuen (Erantzukizun Politikoen Legea, Masoneriaren eta Komunismoaren aurkako Errepresioaren Legea, Gizarte Arriskugarritasunaren Legea, Gizarte Ikerketako Brigada), erregimenaren modernizazioarekin batera aurrera egin zuena

duaren eta gizarte-mailaren arabera taxonomizatze eta banatzeko: gorriak, komunak, alferrak eta gaizkileak (beranduago “sozialki arriskutsuak” izendatu zituzten). Guardia Zibilak zaindutako garita eta alanbre-hesien artean, diktadurak bere politika palingenesikoa garatu zuen, Espainiako gizarte berriaren elementu patogenoak giltzapetuz: pilaketa, gaixotasun kutsakorren hedapena (Mikomesengeko eredu bezala) eta kartzeletako funtzionarioen tortura etengabeak izan ziren nagusi (haietan, falangistek eta soldadu ohiek gerraren helburuen jarraipena ikusten zuten). Exekuzioen eraginkortasuna eta estandarizazioa izan ziren saraski-politika frankistaren adierazpen nagusiak: politika hori *Caudillo*aren El Pardoko bulegoan hasten zen, hark bere errubrikak idazten zituenean (berriz ere, ikusten dugu ez zirela bat-bateko neurrigabekeriak); gero, presoak *Campamento* izeneko esparru militarrean lekualdatzen zituzten, eta bertan fusilatu; eta, azkenik, gorpuk Carabanchel Bajoko hilerria itzultzen zituzten (kartzelari erantsia dago, inola ere ez kasualitatez). Prozedura horren bidez, gutxienez, Carabanchelgo 153 preso hil zituzten 1944 eta 1953 bitartean, kontuan hartu gabe sotoetan komenientzia ezkatututako garroteetan exekutatutakoak, ezta torturen ondorioz hildakoak edo beren buruaz beste egin zutenak ere. Ez zen gerraosteko salbuespen bat izan, inondik inora ere. Estatu frankistak lege-aparatu oso bat osatu zuen (Erantzukizun Politikoen Legea, Masoneriaren eta

Komunismoaren aurkako Errepresioaren Legea, Gizarte Arriskugarritasunaren Legea, Gizarte Ikerketako Brigada), erregimenaren modernizazioarekin batera aurrera egin zuena. 1963an, Barne Defentsa taldeko Granado eta Delgado anarkistak eta PCEko Julián Grimau exekutatu zituzten Carabanchelen. Era berean, ehunka sexu- eta genero-disidente, eskale, alkoholiko edo drogazale kartzelatu zituzten, eta/edo ospitale psikiatrikoan torturatu. Langile-mugimenduko militanteen belaunaldi berrietako askok ere beren hezurak izar-formako adreiluzko kartzela hartan paraturik amaituko zuten.

Hala ere, adierazi dugun bezala, prozesatze masiboa estatu burgesaren berezko jokabidea da, eta, beraz, indarrean jarraitu zuen 1978tik aurrera ere. ETAko edo GRAPOko preso politikoak torturatzeko jarraitu zuten Carabanchelen. Baina, batez ere, ikusten dugu langile-klaseko sektorerik pobretuena, desarrollismoaren eta demokraziaren integrazio-mekanismoetatik bazterturik bazterturik, kartzelatik igarotzera behartu zutela (preso “sozialak” amnistietatik kanpo gelditu ziren, nahiz eta indarrez mobilizatu zen COPEL Borrokan dauken Presoen Koordinakundea eta preso komunen mobilizazioak izan ziren 1977-78ko martxinadetan). Arturo Lezcano kazetariak zioen bezala, “gerraostea eta Carabanchel kontzentrazio-esparrua balira bezala hitz egiten dugu 80ko lehenengo urteez”. Klase-maila horietan heroinarekiko menpekotasuna eta gazte-delinkuentzia agertu zirenean, lege- eta ordena-politikek auzipetu horiek guztiak Carabanchel kartzelan eta beste batzuetan kontzentratzera eta isolatzera eraman zituzten. Hor botatzen zituzten Espainiako gizarte demokratiko berrian nahi ez zituzten elementu gisa (lapurrak, jonkiak, gaixoak). Kartzela laster bihurtu zen ghetto, non indarkeria etengabekoa zen eta higiegi falta eta GIBaren izurritea mugarik gabe hedatzen ziren (1991n gutxienez presoan laurden bat zegoen kutsaturik, Kartzela Institutuzioen arabera).

Presondegiaren mende erdiko historian, 1998an itxi zuten arte, Espainiako Estatuak erabilitako errepresio modu gehienak gauzatu zituzten, adibidez gerraosteko faxismoaren bortxazko lana eta saraski politikoa, zeinak iragan kolonialera eta Berezarkuntzara garamatzaten. Era berean, gaixoak kontzentratu eta abandonatzeko eredu elementu batzuk eta Gineako lazaretoak kopiatu zituzten Trantsizioan eta demokrazian. Kartzelako biztanleria etengabe hazi zen diktadura amaitu zenetik. Gaur egun, 1975ekoa baino hiru aldiz handiagoa da: 15.000 preso ingurutik ia 50.000ra igo da, nahiz eta kriminalitate-tasa nabarmen jaitsi.

***Carabanchelen eta antzeko kartzeletan
botatzen zituzten Espainiako gizarte
demokratiko berrian nahi ez zituztenak,
tarteetan lapurrak, jonkiak eta gaixoak.
Kartzela laster bihurtu zen ghetto, non
indarkeria etengabekoa zen eta higiene
falta eta GIBaren izurritea mugarik
gabe hedatzen ziren (1991n gutxienez
presoen laurden bat zegoen kutsaturik,
Kartzela Institutuzioen arabera)***

Gaur egun ere, Espainiako Estatuak, duela 80 urte preso politikoekin eta proletariotza nekazariarekin eta duela mende bat baino gehiago Kubako edo Rifeko biztanleekin egiten zuen bezala, proletariotza migratzailea pilatu, torturatu eta hiltzen uzten du. Kontzentrazioa eta sarraskia ez dira salbuespena, basakeria kapitalistaren berezko arau historikoa baizik.

Duela ehun urte baino gehiago Karibeko kolonietan ireki eta Rifetik, Espainiako Gerra Zibileko eta gerraosteko mendilerro eta landetatik eta Ginea Espainiarreko lazaretoetatik igarotzen den zirkulua ixteko, gaur, Alucheko Atzerritarrak Barneratzeko Zentroa (CIE) dago Carabanchelgo espetxe-ospitale zaharreko lurretan –lurrok, kartzelako dokumentazio ofizial guztia bezala, egokiro garbitu ondoren-. Kontzentrazio-esparru forma berri horretan, Espainiako Estatuak, duela 80 urte preso politikoekin eta proletariotza nekazariarekin eta duela mende bat baino gehiago Kubako edo Rifeko biztanleekin egiten zuen bezala, proletariotza migratzailea pilatu, torturatu eta hiltzen uzten du. Kontzentrazioa eta sarraskia ez dira salbuespena, basakeria kapitalistaren berezko arau historiko bat baizik. ●







BIBLIOGRAFIA

Casals, Xavier y Ucelay-Da Cal, Enric, *El fascio de las Ramblas. Los orígenes catalanes del fascismo español*, Bartzelona, Pasado y Presente, 2023.

Fernández Pasalodos, Arnau, *Hasta su total exterminio. La guerra antipartisana en España (1936-1952)*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg, 2024.

Hernández de Miguel, Carlos, *Los campos de concentración de Franco. Sometimiento, torturas y muerte tras las alambradas*, Bartzelona, Penguin, 2019.

Paxton, Robert O., *Anatomía del fascismo*, Madril, Capitán Swing, 2019.

Preston, Paul, *Arquitectos del terror. Franco y los artífices del odio*, Madril, Debate, 2021

Ruiz Casero, Luis A., *Carabanchel. La estrella de la muerte del franquismo*, Madril, Libros del K.O., 2025.

Stucki, Andreas, *Las guerras de Cuba. Violencia y campos de concentración (1868-1898)*, Madril, La Esfera de los Libros, 2017.

Tofiño, Iñaki, *Guinea: el delirio colonial de España*, Bartzelona, Bellaterra, 2021.

Traverso, Enzo, «Holocausto y colonialismo: a propósito de “El catecismo alemán”», Sin Permiso, 2022ko apirilaren 23a.






Diktadura frankistak Iberiar Penintsulan, Balear Uharteetan eta Kanarietan zituen kontzentrazio-esparruen mapak

LAN ESKLABOAREN BILAKAERA FRANKISMOAN

SALAKETARIK ETA KONDENARIK
GABEKO GERRA ETA
GOBERNU-PRESOAK

PRESO POLITIKOAK,
SOZIALAK ETA KOMUNAK

KONDENATURIKO GERRA ETA
GOBERNU-PRESOAK



KOLABORAZIOA

GA

ZA

KONTZENTRAZIO-ESPARRU BAT AIRE ZABALEAN

Testua — **Manex Gurrutxaga**

Irudia — **IreneWCKD** @irenewckd

Gaza munduko kontzentrazio esparrurik handiena eta populatuena da, 365 km² inguru ditu eta, Palestinako Estatistika Bulegoaren arabera, ia 2,3 milioi pertsona bizi ziren bertan 2023ko urriaren 7aren aurretik. Egungo egiazko datuak ezagutzea zaila da, baina lerro hauek idazten ari garen unean, urriaren 7az geroztik, 59.038 hildako, 18.700 atxilotu, 17.000 eraikin kaltetu eta bi milioi lekualdatu egon dira, gutxienez. Desagertuak eta hondakin artean galdutako gorpuzkiak kontuan hartu gabe, jakina.

Gazako Zerrendaren berezitasuna, berez, ez da bertako populazioa, badira-eta hiri populatuagoak munduan, baizik eta biztanle dentsitate hori kontzentrazio esparru gisa funtzionatzen duen lurralde batean egotea, gutxienez Israelek 2007az geroztik blokeo totala ezarri zuenetik. Kontzentrazio esparru bat izateak esan nahi du Israelgo estatuak indarrez dauzkala palestinarrak lurralde batean, haien oinarritzko ezein eskubide errespetatu gabe, haien bizitzan gaineko kontrol militar zuzenarekin eta garbiketa etniko bat gauzatzeko helburuarekin.

Sionismoak, jakina, ukatu egiten du Gazako Zerrenda kontzentrazio esparru bat dela, bai eta horren funtsean dagoen palestinarraren okupazioa, kolonizazioa eta garbiketa etnikoa ere, nahiz eta 2023ko urriaz geroztik modu are lotsagabeagoan agertu diren hainbat kargu politiko eta militar sionismoaren egiazko asmoei buruz hitz egiten eta Gazatik egunero ateratzen diren irudiek munduari buelta ematen dioten.

Hala eta guztiz ere, sionismoa bere aurkako erasoetatik babesten da eta, horretarako, zinismo ariketa erraldoi bat eginez Holokaustoaren biktimak instrumentalizatzen ditu, antisemitismoaren akusazio faltsua lau haizetara zabaltzearekin batera. Funtsean, biktima-papera hartzen du, eta bere buruaren defentsan ari dela aldarrikatzen du. Horren helburua da Israelgo estatuaren existentzia legitimatzea, batetik, eta beren politika terroristak zuritzea, bestetik. Sionismoa, nahiz eta haiek hala nahiko luketen, ez da judutar guztiak ordezkatzeko dituen ideologia eta proiektu politiko bat, are gutxiago Holokaustoaren biktima guztiak ordezkatzeko dituen bat, eta, garrantzitsuena, biktima-posizioak ez dio inori automatikoki arrazoirik ematen, are gutxiago legimitaterik, proiektu politiko supremazista bat gauzatzeko, zeina Ekialde Hurbileko beste herri batzuen zapalkuntzan eta desagertzean oinarritzen den.

Antisemitismoa da sionismoaren babeserako burdinezko ezkutua, eta hori da Israelek hainbes-

Kontzentrazio esparru bat ez ezik, sarraski esparru bat ere bada Gaza 2023ko urriaz geroztik, palestinarraren aurkako genozidio bat gertatzen ari baita Gazako Zerrendan

te aldarrikatzen duen defendatzeko eskubidearen funtsa. Saldu nahi digute defendatu ezean palestinarrak eta, oro har, arabiarrek juduen aurka egingo dutela; alabaina, errealitatea da egun existitzen den jazarpen sistematiko bakarra Israelek gauzatzen duela palestinarraren aurka, bai eta Israelgo estatuan bizi diren gainontzeko gutxiengo etnikoen aurka ere. Gainontzekoei leporatzen diena da, hain zuzen ere, sionismoak Ekialde Hurbileko herriei egin nahi duena, eta hori Gazako Zerrendan bistaratzen da modurik krudelenean.

Dagoeneko esan dugu kontzentrazio esparru baten gisan funtzionatzen duela Gazak, eta baieztapen hori azalduko dugu datozen lefroetan. Gehitu beharko genuke kontzentrazio esparru bat ez ezik, sarraski esparru bat ere badela 2023ko urriaz geroztik, palestinarraren aurkako genozidio bat gertatzen ari baita Gazako Zerrendan.

ITXIALDI TOTALA ETA MUGEN GAIEN KONTROL MILITARRA

Gazako Zerrendan ez dago mugitzeko askatasunik bertan bizi diren palestinarrarentzat; Israelgo estatuak, indarraren bitartez, lurreko, aireko eta itsasoko muga guztiak kontrolatzen ditu eta, horri esker, baita Gazatik atera eta Gazara sartu daitekeen guztia ere. Horrek esan nahi du, praktikan, gazatarrak itxita daudela bertan, kontzentrazio esparru batean edo kartzela batean egongo balira bezalaxe.

Israelgo estatuarekin eta Egiptorekin muga egiten duen lurralde osoa, Gazako Zerrendaren iparraldea, ekialdea eta hegoaldea, alegia, harresi inguratuta dago. Harresi hori hormigoizko armatuz eta hesi elektrifikatuz eraikia dago, eta 24 orduko kontrola dauka kontrol dorrei, droneei, segurtasun kamerei, globo aeroestatikoei eta hainbat sentsoreri





esker (mugimenduarenak, soinuarenak, termikoak eta sismikoak); gainera, zenbait kasutan, kontrol dorreek tiro egiteko sistema automatizatuak ere badauzkate.

Harresia igarotzeko hiru muga-pasabide baino ez daude egun; iraganean gehiago ziren, baina sionistek itxi egin dituzte: batetik, Beit Hanungo edo Erezko pasabidea, Gazako Zerrendaren iparraldean; bestetik, Kerem Shalomgo pasabidea, Israel eta Egiptorekin muga egiten duena hego-ekialdean; eta, azkenik, Rafahko pasabidea, Egiptorekin egiten duena muga hegoaldean. Teorian, Rafahkoa eta Erezkoa soilik dira pertsonentzako pasabideak, eta Kerem Shalomgoa merkantzientzako da bakar-bakarrik, baina, praktikan, pasabide horiek ere oso oso mugatuta edo itxita daude gazatarrentzat.

Rafahko pasabidea da hiru horietatik Gazako lurraldea Egiptorekin lotzen duen bakarra eta, teorian, Egiptoko estatua arduratzen da mugaren kudeaketaz; praktikan, baina, Israelen esku dago, haren oniritzia behar duelako Egiptok pasabide hori ireki edo ixteko. Gainera, Israeliek ez du erreparorik izan, beharrezkotzat jo duenean, bertara militarki sartu eta muga-pasabidearen kontrol zuzena hartzeko, 2024ko maiatzaren 7tik 2025eko urtarrilera egin bezala.

Itsasoa dauka Gazak mendebaldean, eta, hor, hormigoizko harresirik eraiki ez badute ere, Israelgo estatuak kontrol militar zuzena eta totala dauka.

Harresian bezala, muga kontrolatuta dauka indar armatuei, droneei, sentsoreei eta abarri esker, eta gazatarrek debekatuta daukate libreki itsasora irteatea, baita ontzi atzerritarrek Gazara sartzea ere. Horretaz gain, arrantza egiteko muga bat ere ezarrita dauka Israeliek gazatarrentzat, horretarako baimena lortuz gero, noski, eta muga hori gaindituz gero, indar armatuek baimena daukate palestinarrak tirokatzeko.

KONTROLA

Gazako Zerrendan ez daude mugak soilik kontrolatuta, bertako biztanleriaren egunerokoa ere ondo kontrolatzen saiatzen da Israelgo estatua. 2005. urtean, tropa okupatzaileek Gazatik alde egin zuten, 2023ko urrian berriro sartu ziren arte, nahiz eta bi data horien artean aireko erasoak eta aldi bateko okupazioak ere egin zituzten, baina tropak Gazan ez egoteak ez dio Israeli eragotzi urte horietan kontrol mekanismo ugari sortzea biztanleria palestinarra kontrolatzeko.

Nabarmenenak droneen eta sateliteen erabilera dira, eta, horien bitartez, gazatarren mugimenduen gaineko informazioa ez ezik, Gazako objektu, erai-kin eta abarren gaineko informazio osatua ere lortzen du estatu sionistak. Gainera, droneen kasuan, tortura psikologikorako ere erabiltzen dituzte gazatarren aurka: hainbat kasutan droneek, bozgorai-



luen bitartez, burrunba moduko bat erreproduzitu izan dute entzuten ari dena mintzeko helburuarekin, eta jakinarazteko zelatatua izaten ari dela. Bozgorailu horietatik umeen negarrak eta emakumeen laguntza-oihuak ere erreproduzitu izan ditu armada israeldarrak, palestinarrak haien etxeetatik laguntzeko asmoz aterarazi eta ondoren tirokatzeko helburuarekin.

Mota guztietako kamerak eta sentsoreak ere erabiltzen ditu Israeliek Gazari buruzko informazio ahalik eta osatuena eta azkarrena lortzeko. Israelgo lurretatik baloi aeroestatiko batzuk altxatzen dituzte, esaterako, kontrol kamerez, mugimendusentsorez, sentsore termikoz eta abarrez hornituta daudenak, denbora errealean Gazako Zerrendako lurralde osoan gertatzen ari denaren gaineko informazioa jasotzeko. Aipatzekoa da Israeliek baloi aerostatiko horien teknologia Gazako Zerrenda kontrolatu ahal izateko helburu bakarrarekin garatu duela.

Gazatarren gaineko kontrola, ordea, ez da, nolabait esanda, informazioa biltzera bakarrik mugatzen; izan ere, gazatarrek elikagaietara, elektrizitatera, eta bestelako hainbat materialetara eduki dezaketen sarbidea ere kontrolatzen du estatu sionistak. 2025. urteko martxora arte, guber-nuz kanpoko hainbat erakundek kudeatzen zuten laguntza humanitarioaren banaketa Gazako Ze-

rrendan harik eta Israelgo estatuak Gazara edozein laguntza humanitario internazional sartzeari debekatu zuen arte. Hala, bi hilabeteko gosetea sortu eta milaka hildako eragin ondoren, Israelgo estatuak, AEBren babesarekin, laguntza humanitarioa banatzeko sistema berria martxan jarri zuten, Gaza Humanitarian Foundation (GHF) erakunde pribatuaren bidez, estatu sionistak laguntza humanitarioaren kudeaketa kontrolatzeko sortutako erakundea.

GHFk jarri duen banaketa sistemak, batetik, banaketa-guneak edo -zentroak eta banaketen maiztasuna gutxitu ditu. Lehen 400 banaketa-puntu inguru bazeuden Gazan, GHFren aurreikuspena zortzi banaketa-gune sortzea zen, eta badirudi gaur-gaurkoz lau baino ez daudela martxan. Bestetik, laguntza humanitarioaren banaketa militarizatu egin du, lehen GKE-etako boluntarioek egiten zutena orain Israelgo defentsa-indarrek kudeatzen dute, harresiz, txarrantxaz eta kontrol dorrez josita daude, eta sartzeko eta irteteko pasabide bakarra daukate laguntza jasotzera doazenek. Hori gutxi ez eta, jende pilaketak sortzen direnean, indar armatu sionistek palestinarren aurka tiro egiteko agindua dute, eta, ikusten ari garen bezala, sistematikoki egiten dute tiro pilatutako jendearen aurka. Lerro hauek idazten ari garen bitartean, egunean 75 palestinari ari dira erailtzen, batez beste, gose-ilaretan.

Beraz, Israelgo estatuak sistema berri bat jarri du martxan, batetik gazatarren gaineko kontrol zuzenagoa izateko eta, esan bezala, gosea gerra-arma gisa erabiltzeko herri baten aurka, baina, bestetik –eta neurri berean–, presio mekanismo bat ere izan daitekeelako erresistentzia palestinarren aurka erabiltzeko. Hau da, erresistentziaren edozein eraso edo mugimenduren aurrean Israelek elikagaien banaketa murriztu edo oztoka dezake, gazatarrek erresistentziaren aurka jartzeko helburuarekin, herritarrei sinetsaraziz gerri-larien ekintzen ondorio dela Israelek elikagaien hornidura gutxitzea. Erresistentziaren eta gazatarren artean kontraesanak eta hausturak sortzea ere helburu bat da.

Israel eta AEBren asmoa da GHF erakundeak lortzea Gazako biztanleek eskuratu dezaketen elikagai guztien gaineko kontrol totala, eta bide horretan zenbait pauso eman baditu ere, oraingoz ez du helburua guztiz betetzea lortu. Izan ere, noiz-behinka erakunde horren eskuetatik pasa gabeko laguntza sartzen uzten dute, gero eta baldintza zorrotzagoetan bada ere, eta oraindik ere badira GHFren kontroletik kanpo mantentzen diren eta elikagaian banatzen dituzten zenbait gune txiki, lerro hauek idazteko unean, bederen. Gune horiek sukalde komunitario izenez ezagutzen dira eta milaka gazatarri eman die jaten azken urteotan. Hala ere, gero eta gutxiago dira, sionistek sistematikoki suntsitu baitituzte.

Bitartean, Israelek laguntza humanitarioaren kontrol zuzena izateak esan nahi du gazatarrek gero eta sarbide murriztagoa dutela oinarritzko produktu eta ondasunetara, gosez eta egarritz hil nahi dituela estatu sionistak, eta ez bakarrik bonbaz eta tiroz. Ur edangarrira duten sarbidea ere Israelgo estatuaren kontrolpean dago, eta garbiketa etnikorako erreminta gisa erabiltzen du: ur putzuak suntsitu ditu sistematikoki, bonbaketekin, Gazako akuiferoa kutsatuta dago eta itsasoko ura gatzgabetzeko beharrezkoak diren materialak ez ditu sartzen uzten.

BONBAKETA ETA ERAILKETA SISTEMATIKOAK

Israelgo estatua sortu zen egunetik, 1948. urte-tik, sionismoak sistematikoki erail ditu palestinar-
rrak, eta palestinarrek haien lurretatik saiatu da. Baita lehenagotik ere, Lehen Mundu Gerran lehenengo sionistak iritsi zirenean egungo Palestina okupatura, garai hartan Erresuma Batuen kontrolpean zegoen lurraldera, arabiarren aurkako jazarpen bortitza hasi zuten –Erresuma Batuen

babes eta laguntza logistiko eta finantzariorik ezin izango zuten jazarpen hori gauzatu–, biztanleriaren %90 arabiarrek ziren eta. Ondo jasotzen du prozesu hori Perry Andersonnek, *Scurrying Towards Bethlehem* testuan (testu hori Amaia Astobizak eta Iñigo Roque euskaratu zuten, Katakarak argitaletxearentzat, *Palestinaren okupazioaz eta kolonizazioaz liburuan*).

1967ko Sei Eguneko Gerraz geroztik, berriz, Gazako Zerrendaren kontrol zuzena eskuratu zuen estatu sionista jaio berriak, eta orduz geroztik eraiki du egun ezagutzen dugun kontzentrazio eta sarraski esparrua. Ordudanik, erasoak, bonbaketak eta erailketak zenbaezinak izan dira, sistematikoak izan dira, eta zer esanik ez 2023. urteko urritik aurrera, hau da, indar sionistek Gaza berriz okupatu eta palestinarren kontrako historiako ofentsibarik eta sarraskirik basatiena hasi zutenetik.

Israelgo estatuarentzat, Gazan egote hutsa nahikoa arrazoi da bertakoak erasotzeko, tirokatzeko eta bonbardatzeko, modu indiskriminatuan gauzatzeko dituzten erailketak, eta, gainera, bertako biztanleei ez die aukerarik uzten babesteko edo alde egiteko, mugak itxita dauzkalako eta babeslekutzat erabili dezaketen edozein eraikin, ospitale, errefuxiatu kanpamendu eta abar bonbardatua izateko arriskuan dagoelako, Gazan egote hutsagatik. Ikusi besterik ez dago, bestela, nola birrindu duten Gaza 2023ko urritik aurrera, berdin izan zaielarik ospitaleak, eskolak edo etxebizitza partikularrak izan.

DESHUMANIZAZIOA

Palestinarrak bizi duten egoeraren eta Gazako Zerrenda existitze hutsaren premisa eta ondorio ideologiko eta morala da sionismoak palestinarrek deshumanizatu izana. Sionismoak, ideologia politiko moderno gisa jaio zenetik, oinarrian izan du arabiarrek eta palestinarrek deshumanizatu nahi izatea, nahiz eta Israel proiektu politiko modura egonkortzen joan ahala deshumanizazioa formaz, intentsitatez eta krudeltasunez aldatu den. Izan ere, sionismoaren hastapenetan, palestinarren deshumanizazioa haiek existituko ez balira bezala jokatzeko gauzatzen zen, batez ere. Izan ere, Theodor Herzl izan zen sionismoaren aita, eta bere helburu nagusia beti izan zen estatu judutar bat sortzea Palestinako lurretan, baina bertan bizi ziren arabiar-palestinarrak ia ez ziren aipamenik egin, existituko ez balira bezala jokatu zuen, publikoki behintzat.

Antzeko zerbait gertatzen da Lehen Biltzar Sionistarekin; biltzar horrek mundu mailako sionistak bildu zituen 1897. urtean, eta biltzar horren ondotik eratu zen Munduko Erakunde Sionistarekin bate-



ra, erakunde horien bueltan bildutako pentsalari sionistek ahalegina egin zuten kolonizazioaz, garbiketa etnikoaz eta palestinarrak indarrez haien lurretatik botatzeaz hitz egitea saihesteko; ondorioz, Palestinan inor bizi ez balitz bezala jokatzeko zuten, nahiz eta ondo zekiten zein sarraski mota zekarren Palestinan estatu judutar bat eraikitzeak. Ekosistema intelektual horretatik dator, esaterako, sionismoaren ohiko lema bat: “herririk gabeko lurralde bat lurralderik gabeko herri batentzat”. Sionismoaren hastapenetako deshumanizazioa ondo biltzen du Ilan Pappé, *The Ethnic Cleansing of Palestine* eta *Ten myths about Israel* liburuetan.

Palestinarren deshumanizazioa sionismoaren oinarrian bertan badago ere, gero eta krudelagoa, esplizituagoa eta bortitzagoa bihurtu da proiektu politiko horrek indarra hartu ahala, eta zer esanik ez, logikoki, 1948. urteaz geroztik, estatuaren erakuntzarekin lurraldearen eta biztanleriaren zati baten gaineko kontrola errealtate bihurtu zutenetik.

Egun sistematikoa eta estrukturala da palestinarren deshumanizazioa Israelgo estatuaren partetik, bai zuzenean kontrolatzen dituen Palestinako lurralde okupatuetan eta zer esanik ez Gazako Zerrendan. Lehenago ere esan den bezala, Israelgo estatuak okupatutako lurraldeetan, legearen arabera, palestinarrak bigarren mailako hiritarrak dira; izan ere, dozenaka lege daude indarrean herritar horiek diskriminatzen dituztenak, esaterako etxebizitzarako, lurzorurako eta abarretarako sarbidea oztopatzen dieten legeak, edo, errefuxiatuen kasuan, 1948ko Nakbaren ondoren alde egin behar izan zutenei itzultzeko aukera ukatzen die estatuak, mundu guztiko judutarren itzulera baimentzen duen bitartean. Egunerokoan ere, mespretxuzko tratua jasan behar dute estatuko instituzioen partetik, eta zer esanik ez poliziaren partetik, errepresioa sistematikoki aplikatzen zaie-eta palestinarrei.

Sionismoaren hastapenetatik tratatu izan dira arabiar-palestinarrak zibilizatu gabeko izaki gisa, irrazionalak edo basatiak bailiran, baina, orain, zuzenean mehatxutzat hartzen dituzte; palestinarrak terroristak eta etsaiak dira judutarrentzat Israelgo estatuaren ikuspuntutik. Yoav Galant Israelgo Defentsako ministroak animalia-gizaki izendatu zituen palestinarrak, Gazan itxialdi totala agintzeko eman zuen prentsaurrekoan; 2023ko urrian, ez elikagairik, ez urik, ez elektrizitaterik eta ez erregairik ez zela sartuko esan zuen, gerra-krimen baten egile izatea aldarrikatu zuen zuzenean eta mundu guztiaren aurrean, munduko inpunitate osoarekin.

Palestinarrei ematen zaien tratua eta, naziek, esaterako, kontzentrazio-esparruetan presoek ematen zieten tratua, funtsean, berdin-berdina dira: eguneko 24 orduetan kontrolatuak izatea, mugikortasuna mugatzea, erailak izatearekin etengabe mehatxatzea, pertsonen duintasunaren aurkako tratua ematea, gosearen modu kriminalean erabiltzea eta humanitate ororen aurka doazen beste hamaika praktika gauzatzea

Palestinarekiko erretorika eta kontzeptualizazio horrek –etsaiak, basatiak eta terroristak direla–, sionismoari balio dio alde aurreko justifikazio bat sortzeko ematen dien tratu aberekoia justifikatzeko. Animaliek ere merezi ez dutena, bide batez. Deshumanizazioaren adibide argiena da, agian Israelgo defentsa indarrak ikustea haurrak eta, oro har, zibilak tirokatzen eta ondoren ospatzen, euren Tiktok eta Instagram kontuetan, gainera. Krudelkeria hori harro erakustea seinale da palestinarrak erabat desitxuratuta eta animalien pare dituztela israeldarrek gizartean, eta sionistak guztiz fanatizatuta daudela. Ondo dokumentatu eta modu argian adierazi du deshumanizazioaren aurpegi ilunena Al Jazeera komunikabideak, Gaza izeneko dokumentalean; hain zuzen ere, dokumental horrek urtebetean soldadu israeldarrek egindako gerra-krimenak biltzen ditu, israeldarrek beraiek sarera igotako bideoetan soilik oinarrituta.

Hala eta guztiz ere, eta arimaren sakonenean bada ere, gizatasun apur bat badute horietako batzuek behintzat, ez baitira gutxi Gazako Zerrendan egindakoekin eta ikusitakoekin ezin bizi eta bere buruaz beste egiten duten soldadu sionistak. Agian horrek zerikusia izango du deshumanizazioaren beste aurpegi ilunenetako batekin: preso palestinarrei ematen dizkieten tratua erekin eta torturekin. Izan ere, ikaragarriak dira preso ohi palestinarren errelatoak, non kontatzen duten espetxe sionistetan bizi izan dituzten baldintzak, tratu txarrak eta torturak. Ez ditugu hemen azalduko, sentsibiltate arrazoiengatik, baina sarean erraz topa ditzake ezagutu nahi dituenak.

Orain arte deskribatzen aritu garen tratua eta, naziek, esaterako, kontzentrazio-esparruetan preso ematen zieten tratua, funtsean, berdin-berdina dira: eguneko 24 orduetan kontrolatuak izatea, mugikortasuna mugatzea, erailak izatearekin etengabe mehatxatzea, pertsonen duintasunaren aurkako tratua ematea, gosearen modu kriminalean erabiltzea eta humanitate orenen aurka doazen beste ha maika praktika gauzatzea.

Orain arte azaldukotako ezaugarriak pisuzkoak dira baieztatzeko Gazako Zerrendak, praktikan, kontzentrazio esparru batek bezala funtzionatzen duela, bai behintzat 2007. urteaz geroztik, eta zer esanik ez 2023ko urritik aurrera. Baina, gainera, lerro hauek idazten ari garen bitartean, Israelek eta Estatu Batuek Gazarako dituzten asmoen inguruko informazio berria filtratu da. Dokumentu horien arabera, asmoa da, lehenengo fase batean, gazatar guztiak kontzentrazio esparru txikiagoetan pilotatzea, Israelgo estatuak kontrol zuzenagoa izateko haien bizitzan gainea, eta gero –dokumentu horien arabera–, diru kantitate baten truke, Palestinatik kanpora bidaltzeko palestinar guztiak.

Plan hori ez da definitiboa, baina argi adierazten dizkigu bi kontu: batetik, oro har azken urteetan Gazako Zerrendan egin dutena eta, bereziki, ezarri berri duten laguntza humanitarioaren kudeaketa-sistema berria, lehenengo pausua baino ez direla gazatarrak gero eta kontrolatuago eta pilotatuago edukitzeko. Izan ere, laguntza humanitarioaren kudeaketa kontrolpean izanda, gazatarrak mehatxatu ditzake kontzentrazio esparru gogorrago horietara joan daitezen.

Bestetik, egitate hauek, beste behin ere, esplizitu frogatzen dute, frogatzen dute sionismoaren benetako helburua garbiketa etnikoa dela, eta ez Hamasekin amaitzea, bahituak askatzea edo aipatu izan duten beste edozein aitzakia. Aipatutako planaren azkeneko fasean, Gazako Zerrendaren berre-

gituratzeko bat proposatzen da, lurralde hori turismo-ra bideratutako resort eta hotelez josteko eta, nola ez, batez ere kapital estatubatuarren negozioa egiteko. Modu horretara ageri da Gaza Donald Trumpek zabaldu zuen bideo batean, zeina adimen artifiziala baliatuz sortu zen eta une hartan bere bazkide zen Elon Musk ere erakusten zuen.

Horrekin batera, ez da esan gabe utzi nahi Gazako Zerrendan gertatzen ari den genozidioa eta, oro har, Palestinako lurretan sionismoa gauzatzen ari den kolonizazioa eta garbiketa etnikoa ez liratekeela inola ere posible izango Mendebaldeko estatu kapitalisten babesik eta laguntzarik gabe. Erantzule nagusia begi-bistakoa da, Ameriketako Estatu Batuak; izan ere, lankidetzatik haratago doa bi estatu horien arteko harremana, mota guztietako babesak eta laguntza eskaintzen baitio AEBk Israelgo estatuari, azken hori baita Mendebaldearen interesen ordezkari Ekialde Hurbilean. Bigarren erantzulea, ia AEBren neurri berean, Erresuma Batua da, gerrarako materiala bidaltzeaz gain –itsasontziak, hegazkinak, armamentua eta abar–, Gazan zuzenean esku hartu baitu. Royal Air Forcek (RAF) hainbat hegaldi egin ditu Gazako Zerrendan, Erresuma Batua Txipren daukan base militarretako batetik, Akrotiritik, abiatuta, eta litekeena da informazioa helarazi izana Israelgo defentsa indarrei.

Europar Batasuneko estatuak ere genozidioaren eta garbiketa etnikoaren erantzuleak dira, batik bat armamentu militarra saltzeagatik, sionismoarekin harremanak ez eteteagatik eta Palestinaren aldeko elkartasun mugimenduak isilarazi eta zapaltzeagatik. Hori ere gertatzen ari baita: Israelen aliatuak errepresioa eta zentsura gogorra ezartzen ari dira Palestinaren aldeko elkartasun ekimenen aurka. Kasu nabarmenena AEBko unibertsitateetako izan da, baina neurri berean gertatu da, halaber, Erresuma Batuan, Frantzia eta Alemanian, esaterako.

Sionismoaren benetako helburua garbiketa etnikoa da, eta ez Hamasekin amaitzea, bahituak askatzea edo israeldarrek aipatu izan duten beste edozein aitzakia



Amaitzeko, modu berezian aipatu behar da zein aukera eta proposamen erreal dauden palestinarren aurkako kolonizazioa, garbiketa etnikoa eta genozidioa bukarazteko. Egun, tamalez, indar handiena duena, edo gehien zabaldua dagoena, behintzat, bi estatuen konponbidea da, zeinaren esanetan konponbidea ekarriko duena estatu palestinar baten sorrera izango den eta Israelgo estatu Sei Eguneko Gerraren aurreko lurraldeetara mugatuko duen. Ez da testu honen egitekoa proposamen politiko hori sakonean aztertzea, ezta kritika osatu bat egitea ere; horretarako, proposagoa da Noam Chomsky eta Ilan Pappéren arteko elkarriketa-eztabaida biltzen duen liburua, *On Palestine* izena daukana. Hala eta guztiz ere, esan nahi da sarri posibilismotik defendatzen dela bi estatuen konponbidea; alegia, etikoki aukera onea ez izan arren, argudiatzen da defentsa hori posizio politiko errealista batetik egiten dela. Baina hortik ere ez dauka egun nondik heldu proposa-

Europar Batasuneko estatuak ere genozidioaren eta garbiketa etnikoaren erantzuleak dira, batik bat armamentu militarra saltzeagatik, sionismoarekin harremanak ez eteteagatik eta Palestinaren aldeko elkartasun mugimenduak isilarazi eta zapaltzeagatik



men horrek, gutxiago Osloko Itunen porrotaz geroztik eta 2023ko urriaren 7az geroztik.

Aspalditik dator bi estatuen proposamena, baina Osloko bake akordioetan oinarritzen da batik bat, bertan lortzen duelako oinarri bat, ofizialtasun bat, eta bake akordio horien garapenari esker lortu nahi zelako balizko Palestinako estatuaren sorrera eta bi estatuen arteko bizikidetza bake-tsua. Alabaina, itun horren porrotak, Israeliek behin eta berriz palestinarren lurak kolonizatzen jarraitzeak eta garbiketa etnikoan pausuak emateak erakutsi dute, beste behin ere, Israelen benetako izaera zein den, ez dagoela prest palestinarenei inolako estaturik onartzeko, eta bere helburu bakarra Palestinako lurralde osoa okupatzea eta garbiketa etnikoa gauzatzea dela. Eta hori ez da agintari baten edo alderdi baten borondatea soilik, sionismoaren erraietan dagoen ideia bat da, eta Israelgo estatua mundu ikuskera horren gainean eraiki da. Horregatik dauka bi estatuen

konponbideak gehiago utopismotik errealismotik baino, sionismo bakezale bat oinarriko kontraesana baita: Ekialde Hurbileko herrientzat, sionismoa ala bakea, biak ezin dira.

Konponbideak, nahitaez, sionismoaren gaindipena exijitzen du, hau da, sionismoa desagertzea bai ideologia bezala, bai Israelgo estatu modura, zeina haren adierazpen politikoa garatuena baita. Hori da konponbiderako funtsezko premisa. Hori gertatzen bada, estatu bakar batez hitz egiten has gaitezke, akonfesionala dena eta askotariko identitate nazional eta erlijioen eskubide eta aukera berdintasunak bermatzeko gai dena. Eta hori egiazki lortzeko bermeak soilik sozialismoak jar ditzake. Baina egoera horretara iristeko, zauri asko itxi beharko dira lehenik, eta askok ordaindu beharko dute herri errugabe bati inposatutako sufrimendu eta terroregatik. Horregatik, egun, Palestinaren alde egotea baino, esanguratsuagoa da Israelen aurka egotea. ●

KOLABORAZIOA — Gaza: kontzentrazio-esparru bat aire zabalean






2030 AGENDA: KONTZENTRAZIO- ESPARRU ITALIARRAK ALBANIAN

Testua — **Vaptsarov**

Nire 4 seme-alabak gai direnean hegazkina bakarrik hartzeko, nire herrialdera itzuliko naiz, urtero abuztuan egiten dudan moduan, nire oinordetza zaintzen jarraitzeko. Ez dut deportatua izateko beldurrik. Kamerundarra naiz. Zientoka kilometro ditut nekazaritza-lurretan, eta kakao-hektarea ugari. Ez nintzen gosetik edo gerratik ihesi etorri. Legez eta nire borondatez etorri nintzen. Ez naiz esklabotza berriaren parte.

-Bertrand Ndongo





Albanian deportazio-zentro italiarrak sortzea ez da gertakari isolatu bat, baizik eta joera global baten adierazpenik berriena; potentzia inperialista nagusiek migrazio-kontrola herrialdetik kanporatzea. Fenomeno horrek erakusten du mugak, lurraldeak bereizteko baliagarriak izateaz gain, tresna eraginkorrak direla lan-indarra metaketa-beharren arabera kudeatu eta dosifikatzeko, eta munduko kapitalismoaren erdigunearen eta periferiaren arteko lanaren nazioarteko banaketa betikitzeko.

Italiaren eta Albaniaren arteko akordioak, hain justu, kontraesan hauek azaleratzen ditu: ekoizpen-modu honek migratzaileen lan-indar debalutua behar du kontinente zaharrak nozitzen duen krisi demografikoari aurre egiteko eta Europako langile-aristokrazia ziniko eta mimatuak bete nahi ez dituen funtseko zereginak betetzeko, baina, aldi berean, gogortu egiten ditu migrazio-politikak, milioika pertsona marjinatuta eta erabateko segurtasun faltako bizitzan edukitzea; izan ere, hori du ezinbesteko baldintza desjabetzako eta biolentziako dinamika orokor horren eraginez miseriari eta basakeriari ihesi datorren erreserbako industria-armada erraldoi hori menderatu eta esplotatzeko. Albanian pertsona migratzaileak barnertzeko zentroak eraikitzeak, beraz, ondo islatzen du migrazio-kontrola nola den, orobat, negozio bat eta erreproduzio sozialerako tresna bat; nola lekualdatzen dituen geografikoki kapitalismoaren berezko kontraesanak, hain justu Europako gizarte izu eta pijoak ikusten ez dituen leku batera; eta nola uzten duten proletarioen bizitzan kudeaketa beste batzuen esku, pertsona horiek merke-merke hiru garren herrialde batzuei salduz, zeinak erreparo are txikiagoa baitute haiek zapaltzeko.

Eztabaida juridikotik edo humanitariotik harago, hemen migrazioaren kudeaketak ekonomia globalean duen rola dago jokoan: zer irteera eman Kapitalaren begietara erabilgarritasun gorabeheratsua duen lan-indar soberakin bati, zeina muga batetik bestera mugitzen baita sofistikazio handiko oztopo doilorrei aurre egiten eta truke txanpon gisa erabiltzen baitute elite burgesen eta haien eskuin eta ezkerreko maiordomo politikoen arteko nazioarteko akordioetan. Kasu hori ikuspegi iraultzailetik aztertzeak aukera ematen du migrazio-politikak ez ezik haiek sortzen dituzten botere eta esplotazio logika orokorrak ere ulertzeko.

Laburbilduz, zentro italiarrak Albanian ezartzeko plana ezaugarri hauek dituen testuinguru baten emaitza da: Europako migrazioen kudeaketa gero

eta gogorragoa, harrera-sistemak etengabe egotea larrialdi-egoeran eta gainezka, eta, beraz, “erantzun azkarrak” bilatzea, eta, ondorioz, mugen kontrola kanpora ateratzea, estatua militarizatzea eta migratzaileak Europar Batasuneko lurraldeetatik kanpora botatzeko prozedurak ezartzea, “enbarazurik egingo ez duten toki batera”, alegia.

1. ITUNAREN TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK

1.1. Akordioa sinatzea

2023aren bukaera aldera, ordura arte Europar Batasunean inoiz ikusi gabeko akordio bat sinatu zuten Italiak eta Albaniak, Erdialdeko Mediterraneon modu lausoan erreskatatutako migratzaileak kudeatzeko. Ituna 2023ko azaroaren 6an iragarri zuten ofizialki Italiako lehen ministro Giorgia Melonik eta Albaniako lehen ministro Edi Ramak; hala, itunak Italiari bide eman zion “migratzaileak prozesatzeko” bi zentro eraiki eta martxan jartzeko Albanian, konkretuki Shëngjin eta Gjader herrietan.

Italiak zuen “migrazio presioari” erantzutera zentrorren ekimena; izan ere, Afrikan eta Asian gatazketatik, pobreziatik edo jazarpenetik ihesi Europara doazen pertsonen sarrera-puntu bilakatua da Italia. ACNURek eta Migrazioen Nazioarteko Erakundeak emandako datuen arabera, 2023an 150.000 migratzaile baino gehiago iritsi ziren Italiako kostetara, eta kopuru horrek gaintu egin zuen eskualde askoren harrera-gaitasuna, bai eta barne-tentsio politikoa sortu ere.

Albania morroiak, bere lurraldearen erabilera atzerriko herrialde bati uztearen truke, laguntza finantzarioa eta logistikoa jasotzen du Italiatik, bai eta Europar Batasunarekin bat egiteko prozesurako babes politikoa ere. Win-win

Akordioaren oinarrian mugak kanpora ateratze-ko zenbait eredu daude, dagoeneko beste testuinguru batzuetan erabiliak, hala nola Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioan 2016an, eta Naurun eta Papua Ginea Berrian Australiak dituen prozesamendu-zentroetan. Alabaina, oraingoan diferentzia da Italiako agintariek zuzenean kudeatzen dituztela Albaniako zentroak, nahiz eta lurraldeak Albaniaren agintekoa izaten jarraitu. Hitzarmenari bost urteko indarraldia ezarri zioten hasieran, luzatzeko aukerarekin, eta hilean gehienez ere 3.000 lagun giltzapetzeko aukera ematen zuen, akordioaren berri eman zuen *Reuters*en lehenengo txostenen arabera.

Albania morroiak, bere lurraldearen erabilera atzerriko herrialde bati uztearen truke, laguntza finantzarioa eta logistikoa jasotzen du Italiatik, bai eta Europar Batasunarekin bat egiteko prozesurako babes politikoa ere. *Win-win*. Auschwitz-en oihartzunak arintze aldera, akordioak, hasiera batean, bazter uzten zituen adingabeak, haurdun dauden emakumeak eta “pertsona zaurgarriak” (erredundantea badirudi ere). Plan guztia “Italiako harrera-sistemaren presioa arintzeko soluzio pragmatiko” gisa aurkeztu zuten haren sustatzaileek.

Ordea, proposatutako neurri horrek giza eskubideen arloko zenbait erakunderen eta zenbait legelarien kritikak eragin ditu, ohartarazi baitute arrisku nabarmenak dituela asilo eskubidea eta migratzaileen lege bermeak urratzeak.

1.2. Italiako migrazio egoera eta Meloniaren migrazio politika

Lehen aipatu dugun moduan, Europara sartzeko Erdialdeko Mediterraneoa gurutzatzen duten pertsonentzat sarrera-puntu nagusietako bat da Italia. Italiako *Crusotto Statistico*ren arabera, pertsona horien gehienak Ginea, Boli Kosta, Tunisia, Egipto eta Bangladeshkoak dira, beste herrialde batzuen artean.

Lehen ministroak, gaztetan Benito Mussoliniren jarraitzaile sutsua izanak, kontrola areagotzean eta pertsona talde horien “disuasioan” –migratzaileei eta migratzaile potentzialiei beldurra eragitea– oinarritu du bere migrazio politika Gobernura iritsi zenetik. 2023ko azaroan, Meloni honako hau adierazi zuen Diputatuen Ganberan: “Ezin dugu onartu Italia izatea Europara datozen lege kanpoko migratzaileen sarbidea”. Haren Gobernuak, ondorioz, erreskateak egiten dituzten GKEen lana mugatu du, lehorreratze kopurua mugatuz eta arau berriak hausteak dakartzan zigorrak indartuz, tartean 2023ko urtarrilaren 2ko Lege Dekretua betetzen ez dutenen kontrako zigorrak.

Erromak tinko eusten dio kudeaketa murriztaile horri; horretarako, Italiako migrazio politikak “ordena eta legalitatea” behar dituela argudiatzen du. Azken finean, ordena eta legalitatea burgesiarentzat, eta bazterketa eta heriotza proletariotzarentzat

Gainera, bisigu aurpegia duen *duce* horrek, Albaniarekin ez ezik, migratzaileen igarobideko eta jatorriko beste herrialde batzuekin ere sinatu ditu hitzarmenak, adibidez, Tunisiarekin 2023ko ekainean; haren bidez, finantzazioa eta laguntza logistikoa ematen dizkio Tunisiari, irteerak zorrotasun handiagoz kontrolatzearen truke. Gainera, aldiari-aldiari, herrialde horiek ordainsariak jasotzen dituzte eman dituzten zerbitzuengatik; horren adibide da Meloni, bere burua “kriminalitatearen azote” izendatzen duenak, Osama Al-Masri gerra-kriminala aske utzi izana.

Nazioarteko erakundeek eta giza eskubideen arlokoek behin eta berriz kritikatu badituzte ere politika horiek guztiak, Erromak tinko eusten dio kudeaketa murriztaile horri; horretarako, Italiako migrazio politikak “ordena eta legalitatea” behar dituela argudiatzen du. Azken finean, ordena eta legalitatea burgesiarentzat, eta bazterketa eta heriotza proletariotzarentzat.



1.3. Aurrekari legal eta politikoak Albaniako protektoratua

Lehenengo Mundu Gerra bukatu zenetik, Italiak eragin handia izan du Albanian; protektoratua ezarri zuen 1917tik 1920ra, eta, ondoren, merkataritza- eta finantza-hitzarmenen zein arlo militarreko itunen bidez, herrialdeko arlo giltzarriak kontrolatu zituen; adibidez, ekonomia eta azpiegitura. 1920ko hamarkadan, Ahmed Zogu boterera iristean, Italiak kredituak eman zizkion Albaniari, hango zenbait sektore monopolizatu zituen, besteak beste garraioa, eta, Tiranako Itunen bidez (1926 eta 1927), bere posizioa indartu zuen Albaniako Estatuaren aliatu nagusi eta kanpo-bermatzaile gisa. Horrela, Albanian esku hartzeko eskubidea ziurtatu zuen, eta aholkulari militarrek bidali zituen hara, Albaniako Estatu moder-

noak Erromarekin duen mendekotasunaren oinarri historikoak ezartzeko.

Albaniak Italiarekin duen mendekotasuna finkatzeko prozesuaren gailurra 1939ko apirilaren 7ko inbasioa izan zen; hartan, Mussoliniren tropek egun gutxian okupatu zuten herrialdea, Zog I.a erregea erbestera joan zedin behartu zuten, eta Albania Italiako Koroari anexionatu zioten. Horrela, herrialdeak Italiaren estatu satelite gisara funtzionatu zuen 1943ra arte, mandatarik batzuek zuzendurik, eta militarki erabili zuen Italiak, bereziki Greziako erresistentziaren kontra. Alemaniaren okupazioaren ondoren komunistek 1944an askatu zutenean, Albaniak harremana eten zuen Italiarekin, eta ez zuen harekin harreman diplomatikorik izan harik eta Gerra Hotza bukatu, sozialismoa erori eta Albania nazioarteko



kapitaleak arpilaturiko narkoestatu bihurtu zen arte.

XXI. mendeko Italiak, Europaren inperialismo dekadenteko potentzia zentralak, zeinak Albania beti ikusi izan baitu dendaoste gisa, migrazio fluxu konstante batek sortzen zuen kontraesana kudeatu behar zuen: migratzaileak behar zituen bere ekonomiaren sektore pobretuenei eusteko –hala nola nekazaritzari, eraikuntzari eta zerbitzuei–, baina, era berean, “zama” gisa ikusten zituen, ezin baitzituen estatu-aparatuak emandako gaitasun administrati- bo eta materialak gainditu, eta ezin baitzuen onartu hamarnaka mila desjabetu kolpez bere lurraldean sartzeko egonkortasun sozialari zekarkion “meha- txua”. Horrexegatik erabaki du migrazio kontrola kanpora ateratzea, bere betiko albaniar protektora- tura, sozialismoaren gainbeheraz geroztik umiliatua

eta zapaldua den periferiako herrialde horretara, zeinak, aspirazio nagusi Europar Batasunean inte- gratzea izanik, atseginez onartzen baitu funtzio hori laguntza politikoaren eta finantzarioaren truke.

Legeari dagokionez, estrategia horren helburua da nazioarteko zuzenbideak asiloaren eta giza es- kubideen arloan ezartzen dituen betebeharrak eta mug- ak saihestea. Prozesamendu-zentroak Italiako lur- rraldetik kanpora ateratzean, salbuespen-espazio bat sortzen da, non berme legalak erraz murriztu daitezkeen, edo bertan behera utzi, eta horrek mi- gratzaileak azkar kanporatzea eta haien mugikorta- suna kontrolatzea errazten du. Mekanismo horrek segmentazioaren eta bazterketaren logika kapita- lista erreproduzitzen du: migratzaileen lan indarra beharrezkoa da, baina migratzaileak kontrolatu eta diziplinatu egin behar dira, oinarritzko eskubideak oso modu mugatuan izan behar dituzte, eta Kapita- lak etekinak ateratzeko behar dituen migratzaileak bakarrik onar daitezke, ezta bat gehiago ere.

Politikoki, Italiak Europar Batasunaren barruan duen posizioari eutsi nahia islatzen du Italiak Alba- niarekin duen akordioak. Haren bidez, gogor erant- zuten zaie dokumentaziorik gabeko migratzaileei, erdiko klase faxistizatuak kontrol sozial eske egiten dituen eskaera elektoral gero eta handiagoei erant- zuteko. Aldi berean, periferiako herrialdeen subordi- nazioan hartzen du babes, hala nola Albaniaren su- bordinazioan; herrialde horiek diskotekako atezain bihurtzea onartzen dute onura ekonomikoen truke, bai eta Bruselan helduen mahaian eserleku bat lor- zteko promesen truke ere.

Italiak periferiako herrialdeen subordinazioan hartzen du babes, hala nola Albaniaren subordinazioan; herrialde horiek diskotekako atezain bihurtzea onartzen dute onura ekonomikoen truke, bai eta Bruselan helduen mahaian eserleku bat lortzeko promesen truke ere

Laburbilduz, kapitalismo globalak bere barne antagonismoak kanpora atera eta denboran atzeratzen dituela erakusten duen beste adierazpen bat besterik ez da Tiranaren baliabidea: zentro inperialistak blindatu egiten ditu bere mugak eta lan merkatuak, eta, aldiz, periferiek eta semiperiferiek migrazio-kudeaketaren kostu sozial eta politikoa onartzen dute, lan zikina alegia, egiturazko desparekotasun eta zaurgarritasun muturrekoak erreproduzitzen dituen botere joko batean. Horrenbestez, akordio hori ez da lider zoratu batzuei bururatu zaien migrazio politika murriztaile edo erreakzionario baten sintoma hutsa, baizik eta estrategia arrazional bat, European eta mundu osoan indarrean den lanaren nazioarteko banaketari eusteko balio duena, eta, horrekin, baita ezarritako ordena ekonomiko eta soziala babesteko ere.

2. ZENTROEN DESKRIBAPENA

2.1. Azpiegiturak

Italiak Albanian dituen deportazio zentroak Shëngjin eta Gjader herrietan daude, Lezhë probintzian biak ere, Tirana iparraldetik 50 bat kilometrora. Instalazio horiek, Italiak diseinatuak eta finantzatuak, bijilantzia altuko atxikipen-zentroek dituzten

ezaugarri fisiko eta segurtasun ezaugarriak dituzte. Italiak Albanian dituen deportazio-zentroen prozesua Shëngjinen hasten da, han lehorreratzen baitira Mediterraneoan erreskatatutako migratzaileak. Iristean, migratzaileak identifikatu egiten dituzte, mediku-arreta eta arropak ematen dizkiete, eta asilo-eskaera aurkezteko modua izaten dute, baina ezin dute bertan gaurik pasatu. Egun horretan bertan, Gjaderrean eramaten dituzte autobusean migratzaileak, zentro nagusira, kostatik 20 kilometrora.

Gjader kontrol goreneko instalazio bat da; bost metroko harresi batek inguratzen du, eta kamerak, droneak eta Italiako Poliziak etengabe bijilatua dago.

Gunea modulu prefabrikatuz eraikia dago, eta hiru eremu ditu: eremu nagusi bat asilo-eskatzaileentzat (gehienez ere 28 eguneko egonaldietarako 400 leku ditu, baina 880 lekura handitu daiteke kopuru hori), kanporatuak izateko zain daudenentzako sekzio bat (144 leku, leihoetan burdin-sareak dituzten logeletan), eta barne-espetze txiki bat, 20 pertsonarentzako tokia duena, egonaldian zehar matxinatze-
ra ausartzen direnentzat.

Logelak 12 metro koadro ingurukoak dira; lau pertsonarentzako literak, armaru bat eta mahai bat dituzte; bertan bizi direnek txosten bat jasotzen dute iristean, eta gune komunak dituzte otoitz egi-

ZENTROA	KOKAPEN ZEHATZA	GAINAZALA ETA EGITURA	GAITASUNA ETA ERABILERA NAGUSIA	SEGURTASUN EZAUGARRIAK ETA BARNEKO BIZITZA
Shëngjin	Shëngjin kosta-hiriko portu industrialak, kaia- ren ondoan.	3.500 m ² , modulu prefabrikatuak eta zoru sintetiko berdea.	Gehienez ere 200 pertsona, lo-lekurik ez; iritsiera, identifikazioa eta lehenbiziko tramiteak egiteko gunea.	Harresi altuak, drone bidezko kontrola, kamerak; arropa eta janaria banatzen da, eta kontrol medikoak egiten dira; bandera italiarra EBko banderaren aldamenean.
Gjader	Aireko base militar izandakoa, hiri-nukleoetatik aldentua, muino baten aldamenean.	70.000 m ² baino gehiago, modulu prefabrikatuak, 12 m ² -ko logelak lau pertsonarentzat, bereizitako guneak asilo-eskatzaileentzat eta aberriratuentzat, eta barne-espetxea.	400 leku, 880 izatera irits daiteke; atxikitze-gunea 144 pertsonarentzat, eta barne-espetze txiki bat 20 lagunentzat.	5 metroko altuerako harresi perimetrala eta 2 km baino gehiagoko perimetria; kamerak, Italiako Poliziaren etengabeko bijilantzia; literadun logelak, aire egokitua, otoitz egiteko eta bideodeietarako guneak; kanpotik hornitzen da janaria.

Deportazio zentroan jasaten duten bahiketa instituzional horretan, bertan atxikitako pertsonen askatasuna kentzen zaie, deliturik egin ez badute ere

teko edo bideokonferentzia judizialerako. Ez dago jangelarik: jatekoa paketetan etortzen da kanpotik, eta gune komunetan kontsumitzen da.

Bahiketa instituzional horretan, bertan atxikitako pertsonen askatasuna kentzen zaie, deliturik egin ez badute ere. Ezin dute esparrua utzi, eta etengabe ikuskatzen dituzte. Diotenez, helburua da “pertsona horien migrazio egoera gehienez ere 28 egunean ebaztea”, kanporatzearen edo nazioarteko babesa ematearen bidez.

2.2. Kudeaketa eta langileak

Deportazio zentroen kudeaketa eta funtzionamendua Italiako Estatuaren kontrolpekoa da erabat. Italiako Gobernua da instalazio horien finantzaketaren, administrazioaren eta eguneroko jardunaren arduradun nagusia, 800 milioi euro inbertitu baitzituen hura eraikitzen eta martxan jartzen, hasieran 5 urterako. Gainera, kalkulatu zuen pertsona bakoitzaren deportazioak milaka euroko kostua duela Erromarentzat.

Zentroetako langile gisa Italiako Poliziako ki-deak, Barne Ministerioako funtzionarioak eta Italiatik bidalitako langile tekniko eta logistikoak aritzen dira nagusiki. Barne-bijilantzia, espedienteen tramitazioa eta zeregin administratiboak italiar jurisdikzioaren pean egiten dira, eta Albaniako Polizia kanpoko perimetra zaintzeaz bakarrik arduratzen da.

Egitura horrek indartu egiten du zentroen izaera estraterritoriala: lur albaniarretan dauden arren, Italiakoak dira haien kudeaketa eta haiei aplikatzeko zaien lege-araubidea, ia enbaxada bat izango balira bezala.

Ez da argitara atera enpresa pribatu espezifikoek parte hartzen dutenik zentroen kudeaketa zuzenean, baina inbertsioa hain handia eta hain konplexutasun logistiko handikoa izanik, pentsa daiteke Albaniako edo Italiako enpresei azpikontrataturik egon daitezkeela mantentze-lanen, elikaduraren eta garbiketaren zerbitzuak, Estatuak gainbegiraturik betiere.

Eredu horren kontrako kritika nagusi moduan, kontratazioaren opakutasunak eta hornitzaileei buruzko gardentasun falta aipatu dituzte zenbait hedabidek eta giza eskubideen aldeko zenbait erakundek.

3. FUNTZIONAMENDUA ETA PROZEDURAK

3.1. Zentroetan barneratuen profila

Zentro horietan bahitutako pertsonen profila hau da, nagusiki: gizon helduak, “ez zaurgarriak”, Italiako Indar Armatuak Erdialdeko Mediterraneoko nazioarteko uretan atzemanak. Prozesatutako lehenengo taldeen profilean daude itsasoan atzemandako pertsonak, nagusiki Bangladesh eta Egiptokoak, Italiaranzko bidean zeudenak eta ez dituztenak betetzen zaurgarritasun-baldintza aitortuak: adin txikikoak izatea, haurdun dauden emakumeak izatea edo behar mediko oso larriak edukitzea.

3.2. Asiloa eta deportazioa tramitatzeko prozesua

Asiloa eta deportazioa tramitatzeko prozesua azkarra eta murriztailea izateko dago diseinatua, eta epe, eskubide eta muga oso definituak ditu. Protokoloak ezartzen duenez, pertsona bat zentroa iritsi eta gehienez ere 28 egunean ebatzi behar da haren asilo-eskaera, prozedura azeleratu bati jarraikiz. Praktikan, helburua da lehenbailehen identifikatzea zein izan daitezkeen aberriratuak, eta pertsona horiek ahal bezain laster kanporatzea. Alabaina, esperientziak erakusten du balitekeela epe horiek luzatzea; izan ere, aberriratzeko gauzatzeko maiz hiru eta sei hilabete artean behar izaten dira, zaila baita behar den dokumentazioa lortzea, edo batzuetan ez baita akordiorik izaten jatorriko herrialdeekin.

Egonaldian zehar, barneratuek, teoriarik, eskubidea dute asilo-eskaera bat aurkezteko, identifikatuak izateko eta oinarritzeko mediku-laguntza jasotzeko. Italiako epaile batek 48 orduan berrikusten du baliozkoak ote diren atxilotaketa eta asilo-prozedurarako sarbidea. Eskaera ukatzen bada –eta hori gertatzen da gehienetan–, kanporatze-prozesua hasten da.

Presoek eskubidea dute erabakiaren kontrako errekurtsua jartzeko, baina tramitazioa laburtua da, eta bermeak zehatz betetzeak baino lehentasun handiagoa du azkartasunak. Zaurgarritzat jotzen diren horiek, ordea (adingabeak, haurdun dauden emakumeak, gaixotasun larriak dituztenak), Italiara itzultzen dituzte, eta ez dira Albaniako zentroetan gelditzen.





**Prozeduraren helburua
“deportagarritzat”
jotzen diren pertsonen
identifikazioa eta
kanporatzea azkartzea
da, baina oztopo legal eta
praktiko handiak ditu.
Gainera, barneratuak
salbuespenezko araubide
murritzaille batean
izaten ditu, berme
mugatuekin eta bijilantzia
zorrotzaren pean**

Ez bada posible aberriratzeari, migratzaileek ezin dute Albanian askatuak izan; beraz, baliteke pertsona horiek Italiara itzultzea, eta horrek zalantzak pizten ditu ereduaren bideragarritasun errealar buruz, haren barne-logikatik bertatik hasita.

Zentro horietako bizi-araubidea zorrotza da: sarri oso mugatua dute lege-laguntzak eta prentsak, eta horrek kritikak sortu ditu gardentasunari eta giza eskubideekiko errespetuari dagokienez.

Laburbilduz, prozeduraren helburua “deportagarritzat” jotzen diren pertsonen identifikazioa eta kanporatzea azkartzea da, baina oztopo legal eta praktiko handiak ditu. Gainera, barneratuak salbuespenezko araubide murritzaille batean izaten ditu, berme mugatuekin eta bijilantzia zorrotzaren pean.

3.3. Araudiaren aldaketa berriak

2025eko martxoan, Albaniako migratzaileen barneratze-zentroen erabileran funtsezko zenbait aldaketa egiten dituen dekretu berri bat onetsi zuen Italiako Gobernuak. Hasieran, zentroek helburu nagusi zuten ahalik eta lasterren prozesatzea gizon helduak, “ez zaurgarriak”, Italiak nazioarteko uretan “erreskatatuak” eta “segurutzat” jotzen diren herrialdeetatik etorriak. Ordea, araudia zabaldu egin zen, eta aplikatzen hasi zen Italiako lu-

rretan zeuden eta asilo-eskaera ukatua zieten pertsona dokumenturik gabeak Albaniara eramateko; hau da, kanporatze-agindu bat indarrean izan eta Italiako lurretako aberriratzeko egonaldi zentroetan atxikirik zeuden pertsonak ere ere bidal zitzaizketen bertara.

Aldaketa horrekin, Shëngjin eta Gjader udalerrietako zentroak aberriratzeko egonaldi zentroen Italiako sarearen luzapen gisa funtzionatzen hasi ziren, eta deportatuek aukera zuten gehienez ere 18 hilabetez bertan egoteko, harik eta Europatik behin betiko kanporatzen zituzten arte; hasieran, 28 eguneko zen gehieneko epe hori.

Oztopo judizialen eta atxilotze-agindu batzuk baliogabetu izanaren eraginez ia hutsik egonak ziren instalazio horiei erabilera emateko jarri zuen Erromak martxan neurri hori. Horrez gain, haren helburua da, halaber, Europako Kontseiluak itzultze zentroei eta aberriratzeari buruz duela gutxi egin dituen proposamenekin bat egitea.

Aldaketa horien justifikazio politikoa da zentrook “migrazio kontrola indartzeko”, migratzaileak azkarrago kanporatzeko eta Italiako iritziz publikoari eta biztanleria migratzaileari “irmotasun” mezu bat bidaltzeko balioko dutela. Italiako Gobernuak dio zentro horiek mugetatik kanpo ateratzeko eta haien erabilera zabaltzeko aukera emango duela “Italian gelditzeko eskubiderik ez duten pertsonen aberriratzeari modu eraginkorragoan kudeatzeko”, bai eta harrera-sistema nazionalaren gaineko “presioa arintzeko” ere.

4. TESTIGANTZAK ETA ESPERIENTZIAK

Albaniako zentroetan giltzapean dauden pertsonen zuzeneko testigantzarako sarbidea oso mugatua izan da orain arte, aipatutako murritzetak eta instalazioen isolamendua direla eta. Hala ere, Guia Tani abokatu italiarrak –Gjader zentroa bisitatu duen kanpoko pertsona bakarrenetakoa izan da– zentroan barneratutako pertsona batzuen inpresioak jaso zituen. Azaldu zuen horietako bat “alaitasun artifizialeko” egoeran ikusi zuela, ziurrenik psikofarmakoen eraginpean, eta balizko jipoi bati buruz hitz egitea saihestu zuela. Hala-ber, Tanik adierazi zuen telefono pertsonalak konfiskatu egiten dizkietela sartu bezain laster, eta baimendutako deiak oso laburrak direla, eguneko 10-20 minutukoak pertsonako. Bestalde, zentroko agintariek astean hogeiz gizon inguru iristen zirela adierazi zuten arren, abokatuak bi preso bakarrik ikusi ahal izan zituen, eta horrek okupazio oso txikia, muturreko isolamendu giroa eta eskubide zibilen ia erabateko etetea iradokitzen ditu.



***Telefono pertsonalak
konfiskatu egiten
dizkiete sartu bezain
laster, eta baimendutako
deiak oso laburrak
dira, eguneko 10-20
minutukoak pertsonako***

4.1. Albaniako biztanleen erreakzioak

Shëngjinen eta Gjaderen, zentroen presentziak askotariko erreakzioak eragin ditu. Alde batetik, Shëngjineko inguru turistikoko eguneroko bizitza ia ez da aldatu, eta bertako askok zentroen jarduerarekiko axolagabetasuna edo ezjakintasuna adierazten dute. Beste aldetik, albaniarren sektore batzuk kezkatuta daude barneratuek jasaten duten isolamenduagatik eta instalazioek eskualdearen irudian izan dezaketean eraginagatik. Hala ere, oro har, zentroen kudeaketa “normaltasun isilean” egiten da, ez baitago barneratuen egoerari edo epe luzeko ondorioei buruzko ikusgarritasun publikorik, ezta ia eztabaida sozialik ere.

Sekretismoa, isolamendua, kontrol zorrotza eta gardentasun txikia dira nagusi, bai barneratuentzat, bai gizarte albaniarrarentzat; izan ere, Italiako agintariak egoeraren eraginkortasuna eta kontrola lehenesten dute.

5. ALDERDI LEGALAK

Giza eskubideen aldeko aditu eta erakunde ugari agerian utzi dute Albaniako zentroek nazioarteko eta Europako zuzenbidearen oinarritzko printzipioak urratzen dituztela. Adierazi dutenez, asiloaren eta atxiloteten kudeaketa hirugarren herrialde baten esku uzteak mugatu egin dezake nazioarteko babesa eta oinarritzko berme prozesalak eskuratzea, bereziki prozedurak bizkortzen direnean eta abokatuekin eta senideekin harremana murrizten denean. Gainera, adituek azpimarratu dute deportaziorako “segurutzat” jotzen diren herrialdeen hautaketa problematikoa dela, izan ere, askotan ez da bermatzen giza eskubideen babesa estatu horietan. Paradoxikoki, segurutzat jotzen diren herrialde horietatik datozen pertsonak, maiz, “susmagarritzat” edo “arriskutsutzat” jotzen dira, nahiz eta badirudien haien jatorri-herrialdeak pertsona horiek bertara derrigor itzularazteko bezain seguruak direla.

Oraingoan, EBk zenbait erreparo agertu ditu, eta, gobernu batzuek Italiako saiakerarekiko interesa erakutsi duten arren, Europako Batzordeak saihestu egin du eredia esplizituki babestea. Beraien aldetik, ACNUR, Amnistia Internazionala eta Human Rights Watch erakundeek gogor kritikatu dute plana: atxiloteta arbitrarioak eta itzulketa kolektiboak izateko arriskuaz ohartarazi, eta gogorarazi dute proiektua Albaniara kanporatzeak ez duela Italia nazioarteko betebeharretatik salbuesten. Bai Italiako oposizio politikoak, bai epaileen elkarteek, bestalde, salatu dute berme falta dagoela eta Gobernuak kontrol judizialak saihesten saiatzen ari dela.

Paradoxikoki, segurutzat jotzen diren herrialde horietatik datozen pertsonak, maiz, “susmagarritzat” edo “arriskutsutzat” jotzen dira, nahiz eta badirudien haien jatorri-herrialdeak pertsona horiek bertara derrigor itzularazteko bezain seguruak direla





Alde horretatik, oztopo nagusia judiziala izan da. Italiako auzitegiek, behin baino gehiagotan, legez kanpokotzat jo dituzte Albaniako atxilotze zentroak; hala, bertan barneratutako pertsonak Italiara itzultzera behartu dituzte eta proiektuaren operatibotasuna blokeatu dute. Epaileek argudiatu duteenez, batetik, Europako araudiak galarazi egiten du migratzaileak hirugarren herrialde batean luzaroan atxikitzea; eta, bestetik, “erabat segurutzat” jotzen diren herrialdeetatik datozen pertsonak baino ezin dira kanporatu. Horrela, bi faktore horiek mugatu egiten dute planaren irismena. Gainera, Italiako justiziak Europar Batasuneko Justizia Auzitegira (EJJA) jo du, Albanian aplikatutako asilo- eta deportazio-protokolo azkarraren legezkotasuna argitzeko.

Gobernuaren eta botere judizialaren arteko gatazka hain izan da handia, ezen Meloni kasu horiek berrikusten dituzten epaileen eskumena aldatzen saiatu baita. Ez du lortu: oraingoz, 2025eko uztaillean, Albaniara bidalitako pertsona gehienak Italiara itzuli behar izan dituzte epailearen aginduz, eta planaren etorkizuna EBJA hartu gabe dituen erabakien eta Erromak bere araudia Europako estandarretara egokitze duen gaitasunaren mende dago.

Laburbilduz, Italiak Albanian migrazioa kanpora ateratzeko duen ereduak kontrapisu juridiko batzuei egin beharko die aurre, adituen, GKEen eta auzitegien gaitzespen handiarekin. Gainera, oraingoz EBren babes irmorik ez izateak zalantzan jartzen du proiektuaren bideragarritasuna eta legitimitatea. Hala ere, eredu honen sustatzaileek ez dute hain erraz atzera egingo, eta ideia sustraitua dago jada.

6. ERAGINA

Oztopo eta kritika horiek gorabehera, badirudi Von der Leyeni, alemaniar aristokrata gisa pentsatzekoa zen heinean, zoragarria iruditzi zaiola *Unter-menschen* horientzat kontzentrazio-esparruak ezartzeko ideia; ondorioz, posible litzateke Meloniren eredu bere IV. Reich europar osoan erreplikatzeko aukera proposatzek. Gero eta faxistagoak bihurtzen ari diren Europako beste bazkide batzuek ere ez dute hain gaizki ikusi ideia. Hala, Europako bederatzi gobernuk migratzaileak deportatzeko marjina zabalagoa eskatu diote Estrasburgoko Auzitegiari, eta bai Bruselak, baita beste estatu kideek ere, arreta handiz behatzen dute Italiako esperientzia, zeina ebazpen judizialen zain baitago. Aldi berean, lege-erreformak proposatzen ari dira, hirugarren herrialdeetan kokatutako migratzaileentzako kontzentrazio-esparruei lege-estaldura emateko, baita hirugarren herrialde horiek deportatuekin aldez aurretiko loturarik izan gabe ere. Von der Leyenek dagoeneko aurreratu du

bere mugetatik kanpo deportazio-zentroak sortzeko plan bat lantzen ari dela, eta legeingintzaldi honetako “neurri garrantzitsuenetako” bat izango dela.

Reinhard Heydrich eta Heinrich Himmlerrek Adolf Hitlerri proposatutako *azken irtenbidea* baitlitzan, atxilotze-zentroak *irtenbide berritzaile* gisa aurkeztu dituzte Europako Batzordean, “modu eraginkorragoan kudeatzeko” haiek “migrazio-arazoa” deitzen dutena, naziek “juduen arazoa” esaten zuten bezala. Izan ere, Europar Batasuneko agintariak dagoeneko proposatu dituzte Italiako esperientzian oinarritutako lege-erreformak: atxilotzeko gehieneko epeak luzatzea eta itzulketak errazteko “herrialde seguruen” zerrendak sortzea. EBko Asilo Agentzia hirugarren herrialdeekin egin daitezkeen antzeko akordioen bideragarritasuna aztertzen ari da; alegia, migratzaileen auzia kanpora ateratzeko joera izango dela lehentasuneko estrategia orokorra etorkinen aurkako Europako politikan.

Hala ere, proposamenak zatiketa eragin du estatu kideen artean. Zenbait herrialdek babes sutsua adierazi dute, hala nola Mette Frederiksenen Danimarkako Gobernu sozialfaxistak eta Geert Wilders buru duten Herbehereetako “Askatasunaren Alderdiko” faxista lotsagabeek. Historikoki kolonizazioaren eta supremazismo zuriaren zale izan diren horiek koordinazio-bileretan parte hartu dute Melonirekin, Europa iparraldeko tirania etnonazionalistetan Italiako eredu erreplikatzeko aukera aztertzeko. Espainiako Estatuan, Pedro Sánchezentzat kanpo-politika da antzerkia egiteko esparru gogokoena; hala, migratzaileak kanporatzeko eredu italiarra publikoki “gaitzetsi” du legearen adar progresistak, eta kudeaketa “humanitarioaren” gidari gisa aurkeztu du bere burua. Jarrera hori barreagarria bezain iraingarria da, Sánchezi ez baitzaio beharrezkoa atxilotze-zentroak eraikitzea hirugarren herrialdeetan. Espainiako agintariak migrazioa kudeatzeko eta geldiarazteko nahikoa mekanismo propio dituzte dagoeneko Estatu lurraldean bertan. Mekanismo horiek, diskretuagoak izanik ere, Italiakoak bezain higuingarriak dira sarritan, eta bi talde handitan laburbiltzen dira:

1. Ezaugarri geografikoak: Kanariar Uharteek, Ceutak eta Melillak sarbide nahiko errazeko herrialde bihurtzen dute Espainiako Estatu Europako beste batzuen aldean, baina, aldi berean, erraztu egiten dute etorkinak kanporatzea izan ere, Afrikako postu aurreratu gisa jarduten dute, bijilantzia- eta “euste” lanetarako”, eta penintsularako immigrazioa fisikoki kontrolatzeko balio diote estatuari.

2. Diplomazia: Madril eta Rabaten arteko migratio-lankidetzak Europako bizienetako eta egituratuenetako bat da jatorrizko herrialdeekiko harremanei

*Badirudi Von der Leyeni,
alemaniar aristokrata gisa
pentsatzekoa zen heinean,
zoragarria iruditu zaiola
"Untermenschen" horientzat
kontzentrazio-esparruak
ezartzeko ideia; ondorioz,
posible litzateke Meloniren
eredua bere IV. Reich
europar osoan erreplikatzeko
aukera proposatzea*

dagokienez, eta sarritan Maroko “lehtasunezko bazkidetzat” jotzen da, bai eta alde biko lankidetzat “eredugarritzat” ere Europako testuinguruan. Akordio horiek barne hartzen dituzte elkarrekin egindako bijilantzia, mugaren kontrola, etorkinak itzultzeko eta berriro onartzeko mekanismoak, bai eta migrazio zirkularreko eta aberriratzeko programak ere; horrek guztiak Mediterraneoko mendebaldeko ibilbidean zehar fluxu irregularrak nabarmen murriztea ahalbidetu du. European alde biko beste akordio batzuk dauden arren, aurreratuagotzat jo ohi dira Espainiaren eta Marokoren arteko lankidetzaren dimentsioa eta izaera operatiboa.

Beraz, Espainiako Gobernuak Meloniren politika kritikatzeko duen bitartean, eta Sánchezek munduaren aurrean bere aurpegi faltsuki adeitsuak erakusten duen bitartean, ikusten dugu Barne eta Kanpo Arazoetako Ministerioen aginduetara dituen sadikeok kontrol-dispositiboak indartu dituztela lurralde horietan eta lankidetzaren arloan. Inoiz hegoaldeko mugan etorkinak iritsi ahala kanporatu dituztela ere jakinarazi da, baita inoren kargura ez dauden adingabeak beste autonomia erkidego batzuetara lekualdatu dituztela ere, hori guztia nazioarteko erakundeek behin baino gehiagotan salatu duten lege-esparru baten babesean. Horren guztiaren erakusgai dugu, adibidez, Melillako 2022ko ekainaren 24ko sarraskia.

Gainera, Atzeritarrei buruzko Erregelamendu berria, 2025eko maiatzetik indarrean dagoena, “integrazioa errazteko erreforma” gisa aurkezten da; hala ere, praktikan, izapideak arintzea lehenesten du, sakoneko egiturazko arazoei heldu gabe.

Sánchezek, oraingoz, ez du migrazio-kudeaketarik esportatzeko inolako beharrik: “mugari eusteko” eta barne-kudeaketako amarru guztiak hobetu ditu. Herrialde “abegitsuaren” irudiari eusten dio, eta, bitartean, Europako gotorlekua eratzen duen harresiaren gainerakoan aplikatzen diren neurriak bezain murriztaileak diren kontrol-politikak aplikatzen ditu. Horrela, Espainiak Meloniren ereduari egiten dion “kritikak” marketin gisa funtzionatzen du, ez da benetako alternatiba bat. Finean, gobernu guztiek, bakoitzak bere trikimailuekin, “nahi ez dituztenak” beren herrialdera etortzea eta bertan gelditzea eragotzi nahi dute.

7. NAZIOARTEKO EREDUEN KONPARAZIOA

Mugak kanpora ateratzea eta migrazio-prozeduren *outsourcinga* (edozein aberraziok hartzen du itxura hobe ingelesezko izen bat jarritz gero) ez ditu Italiak asmatu; aitzitik, dagoeneko finkatuta dagoen eta hedatzen ari den joera bat dira, bai

Sánchezek, oraingoz, ez du migrazio-kudeaketarik esportatzeko inolako beharrik: "mugari eusteko" eta barne-kudeaketako amarru guztiak hobetu ditu. Herrialde "abegitsuaren" irudiari eusten dio, eta, bitartean, Europako gotorlekua eratzen duen harresiaren gainerakoan aplikatzen diren neurriak bezain murriztaileak diren kontrol-politikak aplikatzen ditu

Europako gotorlekuan, bai mundu osoan. Italiak Albanian martxan jarri duen Meloniren bidea, beraz, Europar Batasunaren eta Mendebaldeko bloke inperialistaren estrategia zabalago batean kokatzen da: bide honek migrazio-kudeaketa bere lurraldeetatik kanpora eramatea bilatzen du, eta, horretarako, kontrolak eta prozedurak hirugarren estatu pobretuagoei eskuordetzen dizkie finantzaketaren eta abantaila diplomatikoen truke.

7.1. Antzeko ereduak European eta munduan

2016an Europar Batasunak Turkiarekin egindako akordioan, Bruselak milaka milioi euro ordaindu zituen Ankarak bere mugen kontrola sendotzearen truke, Mendebaldeko potentziek eta haien nazioarteko mertzenario wahabistek eta salafistek Sirian eragindako odolustetik ihes egiten zuten pertsonak geldiarazteko. Ordutik, EBk “migrazioari eusteko” eskema horri erantzun dio (inguruko herrialdeak finantzatu eta funtsezko ibilbideak zaindu ditu), eta Melonik printzipio hori garatu du, irudimen gehiagorekin eta pauso bat harago emanez.

Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itun berriak ikuspegi hori indartzen du indartzen du igarotze-herrialdeekin akordioak sustatuz eta Europako lorategitik kanpo “itzultze-zentroak” sortuz:

• **Danimarka eta “Ruandako eredua”:** Danimarkako sozialfaxistek oso atsegin izan zuten britainiarren ideia, asilo-eskatzailleak Ruandara deportatzekoa, alegia, eta kontuan hartu zuten. Afrikako herrialde horretan, espedienteak Europako lurretatik urrun prozesa zitezkeen, konpentsazio ekonomikoen truke.

• **Estatu Batuak:** Estatu Batuetako migrazio-politikan ere ikusten da mugak kanpora ateratzeko joera hori, Mexiko eta Erdialdeko Amerikako herrialdeak finantzatzeko eta presionatzeko baititu migrazio-fluxuak geldiarazi ditzaten migratzaileak AEBko hegoaldeko mugara iritsi aurretik.

7.2 Atzerritarrak barneratzeko zentroen (CIE) arteko aldeak eta antzekotasunak Espainiako Estatuan, Grezian, Turkian eta Tunisian:

Migratzaileentzako Espainiako eta Greziako atxilotze-eremuek –Espainiaren kasuan CIE akronimo zorigaiztokoaren bidez ezagutzen direnak– barneko euste-neurri gisa funtzionatzen dute, estatuen lurretan bertan, eta gainbegiratze judizial

txiki baten eta nolabaiteko barne-presio sozialaren menpe daude. Kudeaketa kanporatzeak, hau da, Meloniren estiloko sistemak, aldiz, aukera ematen die Europako gobernuei “arazoa” erabat urruntzeko, hedabideen ikusgarritasuna ia hutsera murrizteko eta izan zezaketen gutxieneko kontrol “demokratikoa” neutralizatzeko, erantzukizuna giza eskubideen estandar “bikainengatik” ezagunak diren herrialdeen esku utziz.

Laburbilduz, migrazioa kanporatzeko sistema Deportazio Industria Global Handi batean integratzen da, eta metaketa kapitalistaren premien aurrean masa pobretuak eta soberakinak kontrolatzea eta eustea du helburu, betiere gehiengo sozial zabalaren ongizatearen, osotasunaren eta askatasunaren kaltetan.

Beraz, Italiak Albanian duen eredua ez da salbuespena, baizik eta arau eta joera baten azken adierazpena, migrazioaren fenomeno konpondu beharrean, nazioarteko kapitalismoaren periferietara lekualdatu, gogortu eta larriagotzen duena, noizean behin lorategiaren barrualdea ziprztintzen duena. ●


EZAUGARRIA	ALBANIAKO ZENTROAK (ITALIA)	ATZERITARRAK BARNERATZEKO ZENTROAK ESPAINIAN/ GREZIAN/EB-KO BESTE HERRIALDE BATEAN	MUGAK TURKIARA, TUNISIARA ETA ABARRERA ATERATZEA ATERATZEA
KOKAPENA	Hirugarren herrialde batean (lurraldetik kanpo).	Estatuaren lurretan.	EBtik kanpoko igerotze-herrialdeetan.
KUDEAKETA	Jatorri-herrialdeko autoritateak (Italia), hirugarren herrialdean.	Estatuko autoritateak estatuaren lurretan.	Tokiko autoritateak, EBk finantzatuak.
ESKUBIDEAK	Mugatuta, estatuaren jurisdikziopean.	Mugatuta, estatuaren jurisdikziopean.	Oso mugatuta, kontrol judizial urria edo kontrolik ez.
XEDEA	Asiloa prozesatu eta kanporatzeak erraztea.	Asiloa/kanporatzea gauzatu bitartean migratzailea atxikitzea.	Eustea eta disuasioa.
KONTROL JUDIZIALA	Opakutasuna, baliabideak eskuratzeko zailtasuna.	Posible da errekurtsio judiziala, motela izan arren.	Oso mugatua edo ez da existitzen.





El Salvador: askatasuna ala segurtasuna

Testua — **Gaizka Iturralde**



Guztiok izan gara El Salvadorreko espetxeetan presoek jasaten duten tratu iraingarriaren lekuko, 2023ko hasieran makroartzelaren inaugurazioaren testuinguruan gobernuak berak egindako komunikazio-kanpainari esker. Askoren arreta piztu duena izan da, ordea, errepresio-aparatu burgesen pean ohikoa den torturaren, isolamenduaren eta umiliazioaren errealitate krudela ezkutatu beharrean, oraingoan, praktika horiek mundu osoko propaganda-bide gisa hedatu izana. Helarazi nahi den ideia sinplea bezain arriskutsua da: ordena eta egonkortasuna mantentzeko, gogorki esku hartu beharra dago pobreen aurka (eta ez pobreziaren aurka). Izan ere, “Bukele metodo” ospetsua *pandillen* aurkako ustezko gerratik haratago doa.

“Ustezko” diot, ebidentzia batzuek argi erakusten dutelako haren agintaldian izan diren hilketen jaitsiera ukaezinaren aurretik negoziatioak izan zirela pandilletako buruzagiekin, eta, hain zuzen ere, jaitsiera hori Lurralde Kontrolerako Plana aplikatzeari ekin aurretik hasi zelako. Medikuntza Legalaren Institutuaren (IML) estatistiken arabera, jaitsiera 2019ko apirilean hasi zen, hau da, Plan hura ezarri baino hiru hilabete lehenago. Halaber, zenbakiak erakusten dute homizidioen tasa 13,1 puntu jaitsi zela programak barne hartutako udalerrietan, eta gainerakoetan, berriz, 15,6 puntu, *La Prensa Gráfica*k 2020an emandako datuen arabera. Eta horrek ez gintuzke harritu beharko, aurrekariak badaude eta. 2012an pandillek eta FMLN al-

**Askoren arreta piztu
duena izan da, ordea,
errepresio-aparatu
burgesen pean ohikoa
den torturaren,
isolamenduaren eta
umiliazioaren errealitate
krudela ezkutatu
beharrean, oraingoan,
praktika horiek mundu
osoko propaganda-bide
gisa hedatu izana**

derdiaren gobernuak adostutako su-etenaren ondoren, hilketa-tasaren jaitsiera %70,6koa izatetik %41,7koa izatera pasatu zen 2011tik 2012ra.

Talde kriminalei lotutako indarkeriaren murrizketari buruzko datuen atzean, estatu-aparatuek eragindako indarkeriari buruzko datuak agertzen dira. 6 milioi pertsona baino ez dituen herrialde batean 80.000 pertsona baino gehiago atxilotu dituzte, eta zigor-zentroetan hildako 500 pertsona baino gehiagoren heriotza salatu dute, horien artean, haur batzuen. Sorospen Juridiko Humanitarioaren txostenaren arabera, %44 indarkeriagatik (torturak) hil ziren, eta beste %29, berriz, arreta mediko faltagatik (beste tortura modalitate bat baino ez da), *Associated Pressen* arabera. Poliziek atxiloteta-kuota batzuz dituzte, eta horietara iritsi behar dute lanaldia amaitutzat eman ahal izateko; horrek erakusten du arbitrariorik direla atxilotetak (eta, jakina, ez dutela defentsa-bermerik), eta telekomunikazioak bortxaezinak. Behin-behineko atxiloaldiak hamabost egunera arte luzatzen dituzte, eta horien ondoren, epailearen ordenagailu-pantailaren aurretik igarotzen dira taldeka, eta guztiak batera zigortzen dituzte.

Baina atxilotzen dituzten pertsonen eskubideak sistematikoki urratzeaz gain, arlo guztietara zabaltzen dira urraketak. 2022an dekretatutako salbuespen-egoera (ustez hilabete iraungo zuena) jada ez da salbuespena, araua baizik. Deriba autoritarioan egiten ari diren urratsen artean nabarmendu dai-

tezke ordezkaritza politikoaren, epailetzaren, esparru polizial-militar osoaren indartzearen eta komunikabideen arloetan hartzen ari diren neurriak, besteak beste.

Parlamentuan lortutako kontrolaren bidez (zeina hasieran indarrez lortzen saiatu baitzen), Bukelek Konstituzio Auzitegiko magistratu guztiak eta Estatuko Fiskal Nagusia aldatu zituen, eta horren emaitza izan zen Carta Magnaren interpretazio berria, hauteskundeetara bere hautagaitza aurkezteko balio ziona. Bestalde, Udal Berregituraketarako Lege Bereziaren bidez, 262 udalerrri izatetik 44 izatera igaro da herrialdea, eta horren berehalako ondorio gisa, alderdi nagusiak kontrol handiagoa izango du herrialdean.

Atzerriko agenteen legea ere parlamentuan onartu zuten modu *espresean*, eta, harekin, agindu bakar batekin esango dute zer gobernuz kanpoko erakundek edo komunikabide independentek lan egin dezakeen herrialdean, eta zeinek ez. Legeak, gainera, jasotzen du lan egiteko baimena dutenek erregistro nazional batean eman beharko dutela izena, eta beren diru-sarreraren %30 ordaindu beharko diotela gobernuari zergatan. Komunikabideen jazarpenari dagokionez, gogoratu behar da salbuespen-egoera abian jarri zenetik kazetari askok, kartzela-zigorretik ihesi, alde egin behar izan dutela herrialdetik. Maiatzaren hasieran, gutxienez zazpi kazetarik egin behar izan zuten ihes Bukelek krimen antolatuaekin dituen harremanak argitara ateratzeagatik, eta *El Faro* komunikabideak Costa Ricara mugitu behar izan du.

Segurtasunaren izenean, beraz, demokrazia burgesen mozarroa kendu du El Salvadorreko erregimenak. Ez dute antzeztu beharrik botere legilearen, judizialaren eta betearazlearen arteko zatiketa dagoenik, ezta, besteak beste, errugabetasun-presuntzioaren bermatzen denik ere. Ustez krimen antolatuari aurre egiteko erabaki sorta bat zen hori, egiaz, gobernuaren edo hark ordezkatzaren duen burgesiaren interesen kontra zarata apur bat egin dezakeen edonoren aurka aplikatzen da. Lider komunitarioak, etxebizitzaren eta lurraren aldeko manifestazioetan atxilotutako manifestariak eta urre-meategien kontrako ekintzaileak daude, besteak beste, agintariak jazarritakoen zerrendetan.

Azpimarragarriena, beharbada, ez da gainerakoek beren herrialdeetan egin nahi dutena egitea tirano batek, baizik eta zein azkar ari den hori egiten eta, batez ere, nolako onarpena ari den izaten bere menpekoei artean. 2019an boterera iritsi zenetik, Bukelek %80tik gorako onarpenari eutsi dio, eta soilik %1,4k uste du arazo bat dela boterea

***Ustez krimen antolatuari
aurre egiteko erabaki
sorta bat zen hori,
egiaz, gobernuaren edo
hark ordezkatzeko duen
burgesiaren interesen
kontra zarata apur bat
egin dezakeen edonoren
aurka aplikatzen da***

pertsona bakar batean kontzentratzea (*El Paíseko* datuak). Onarpen oso handia izan arren, GLP Datosek egindako galdeketa bateko datuek erakusten dute badela joera apal bat presidenteari suspentsioa ematen diotenen kopuruan; izan ere, pandillak kaleetatik erretiratu ondoren, oraindik ere jendearen kezka nagusia dira pobrezia eta desberdinkeria, urte luzez El Salvadorreko herria zapaldu duten horriek berak. Gainera, arazo horiek larriagotu egin dira bizitzaren kostuaren gorakadarekin eta osasun publikoaren narriadurarekin.

Egia esan, egoera ekonomikoa iraultzeko aukerak ezdeusak dira. Are gehiago, zor publiko gero eta handiagoa dago (besteak beste, Estatu poliziala mantentzeko) eta, bien bitartean, diru-bidalketen menpe jarraitzen du ekonomiaren zati handi batek. Horixe adierazten du, halaber, AEBko Estatu Departamentuak urtarrean egindako azken txostenak, herrialdeko negozio-giroari buruzkoak. Txosten horren arabera, “zor publikoa ezin eutsizkoa izateko bidean dago, eta ziurgabetasuna sortzen du El Salvadorrek etorkizunean dituen konpromisoak betetzeko duen gaitasunari buruz”. 2022tik 2023ra 1.069 milioi dolarreko hazkundera izan zuen, BPGaren %79,2 alegia, eta 2023tik 2024ra, aldiz, 2,511 milioi dolarreko igoera, %8,4ko igoera Erreserba Banku Zentralaren (BCR) datuen arabera. Horrek zalantzan jartzen du indarrean dauden politiken epe luzerako bideragarritasuna.









Biztanle gehienak, oraingoz behintzat, prest daude onartzeko beren askatasun politikoen aurkako eraso basatiak eta herrialdearen degradazio ekonomikoa, eta, nahiz eta horren zergatia konplexua izan daitekeen, badago oharkabean pasatzen den eta mahai gainean jarri beharrekoa den elementu bat: alternatiba falta





Biztanle gehienak, oraingoz behintzat, prest daude onartzeko beren askatasun politikoan aurkako eraso basatiak eta herrialdearen degradazio ekonomikoa, eta, nahiz eta horren zergatia konplexua izan daitekeen, badago oharkabea pasatzen den eta mahai gainean jarri beharrekoa den elementu bat: alternatiba falta. Izan ere, FMLNk –nahiz eta bere garaian inperialismoaren aurkako borrokan erreferente izan eta herrialdeko oligarkia kolokan jarri–, botere-kuota jakin batzuk lortu ondoren eta herrialdea ia 30 urtez gobernatu zuen bipartidismoaren hanketako bat bihurtu ondoren, bere burua aldatu du sistema aldatu beharrean; erabat usteldu da, eta biztanleria kondenatuta dagoen egoera negargarriaren beharrezko laguntzaila bihurtu da. Oharkabea pasatu ohi bada ere, Bukele bera alderdi horretako kide izan zen, 2017. urtean bota zuten arte.

Ez da ahaztu behar Bukeleren estiloko deriba autoritarioa ez dela El Salvadorren berezitasun bat; izan ere, arrakasta handiagoarekin edo txikiagoarekin, Latinoamerikako beste herrialde askotan aplikatu nahian ari dira, hala nola Hondurasen, Ekuadorren eta Guatemalan. Herrialde horietako kriminalitate-tasak oso handiak dira, eta talde kriminalek kontrolatzen dituzte lurralde eta jarduera ekonomiko ugari. Aldi berean, biztanleria-masa handiak beldurtzen dituzte, nahiz eta, masa horiek, paradoxikoki, askotan sare horietan bertan aurkitzen duten beren familientzako mantenua. Ezin dugu ahaztu talde horietako kide izango zirenek pobrezia, deserria, arrazakeria eta indarkeria jasan behar izan zituztela lehen, eta horixe izan zela taldeen sorreraren, bilakarearen, hobekuntzaren eta hedapenaren arrazoia. Alternatiba iraultzailerik ezean, sektarismoaren, estortsioaren, droga-trafikoaren eta sikario-lanaren bidean murgildu ziren. Zentzugabea litzateke pentsatzea horien existentziaren oinarria bera izango dela orain arazoaren konponbidea. Krimen antolatua izenez, formaz edo itxuraz alda daiteke, eta agian, baita lurraldez ere aldi baterako, baina existitzen eta zabaltzen jarraituko du zimenduak aldatu ezean. Zimendu horiek gogorrakoak eta eraisteko zailagoak dira eskubide politikoak suntsitzearekin, hala nola elkartzeko askatasuna ezabatzearekin, bai eta langile-masa pobretuak kontrolatzeko gaitasun handiagoa duen estatu burges batekin ere. ●

Argitalpena
2025KO UZTAILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa eta
diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Licencia


Editoreen oharra: Artekako artikuluetan ageri diren ideia, baieztapen eta ondorioak artikulu bakoitzaren egilearenak dira.

arteka